

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko ekainaren 14a / 500. zenbakia



AZKEN UDA

Irailean, behin
betiko itxiko
dituzte kanpoko
igerilekuak:
igerileku berrien
proiektua
gainean daukagu

BERGARA HIRIA: FINALAK MARTITZENEAN/11 • GAZTETXEA: BIGARREN URTEURRENA ZAPATUAN/12

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIAREN 20. URTEURRENA



BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net

**20 urte zuekin
egunez egun
euskaraz.**

Ekainaren 14an:

MONGOLIA

JR AGIRRE 'MARRON'EN DIAPOSITIBAK
Kultura etxean, 19:00etan



Ekainaren 21ean:

AFARI-JAIA

Euskaltegiko frontoian



2002 UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

MATRIKULATZEKO EPEA

Ekainaren 10etik 21era.

*Eraman
dotoretasuna
eta plazerra
zure etxera*

*Bainu altzariak eta
osagarriak.*


*Hidromasaje bainerak
eta kabinak*



gelatza

Zubillaga auzoa 1.
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22,
Faxa: 943 78 15 51

ATREBENTZIA EZPADA / Hartuko ziñuzke etxian, udarako, beste herrialde batzuetako umiak?



AMAIA GOITI
33 urte



JOSE MARIA MASACH
71 urte



NEKANE EGAÑA
66 urte



ROSITA URIBARREN
61 urte



SOLEDAD ETXEBERRIA
78 urte



MARI JOSE INZA
41 urte

Oso ondo pentsatzen jat umiak etxian hartzia. Nik be hartuko nittuzke, baiña ondiokan ez. Egoismo puntua be badaukagu, eta umiak hartziak oporretan eragiña daukanez...

Ni bakarrik bizi naiz, eta badaukat zeregin nahikua. Horretarako badare bikote gaztiaguak. Oso ondo pentsatzen jat umiak etxian hartzia; karidadia, gaiñera, beheraka doa.

Hartuko nittuzke, baiña loibekin nahikua daukat, eta aurrera begira be izango dittut beste batzuk. Dana dala, oso ondo pentsatzen jat umiak hartzia, oso gauza ona da.

Ezta ez hartzearen, baiña opor gutxi izaten dogu eta ardura haundixa da. Ondo pentsatzen jat, baiña hobe izango litzake euren herrietan gauzak konpondu eta han geratzia umiak.

Nik edade haundixa daukat eta ez noia konprometitzera, gaztiagua izango bagiña bai, baiña edade honekin... Bestela, ondo pentsatzen jat; geuk be nahiko giñuke gu ondo hartzia-eta.

Hartuko nittuzke, baiña gauza serixua dala pentsatzen jat eta familiari kontsultau biharrekua. Horretatik mirestekuak die udarako umiak hartzen dittuen familixak.

TXALOAKETA TXISTUAK



TXISTUAK SAIHESBIDEKO ZULOAK Torrekua parean, saihesbiderako sarreran, sekulako zuloak daude semaforetatik oso hur. Dilatazio juntek amildegi itxura dute. Konpondu izan dituzte, bueno, konpondu edo zerbaitetan ibili, bi astera zuloak berriz agertu izan dira-eta. Eta ez dira txantxetan hartzekoak. Nola-halako konponketak egin beharrean ez da hobe fundamentuz konpontzea? /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KIROLAK /XX

KULTURA /12

Igerilekuen azkeneko uda

Bihar zabalduko dituzte kanpoko igerilekuak. Gainera, proiektu berria dela eta, hau izango da azkena.

Bergara Hiria Txapelketa

Bergara Hiriko amateur finalean Igor Gutiérrezek Aritz Laskurain ordezkatu du martitzenean.

Gure Ametsa elkarte

Zapatuan, 12:30ean, hamaika doinu osatutako diskoa aurkeztuko dute Gure Ametsa elkarteak.

ASTEKO DATUA

500

BERRIGARAK ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA

Esku artean duzuen ale hau BERRIGARA aldizkariaren bostehungarrena da. 1990eko abenduaren 14an sortu zen; aurrean, hortaz, hamabi urte beteko ditu asteroko jardunean.

BESTEKE SANA

Uztailaren 7an jokatu da Espainiako Piragismo Txapelketa Lleidako Sort herrian.

Eta uste dut Bergarako taldeak aukera asko dituela txapelketa horretan dominaren bat eskuratzeko.

IÑAKI GALLASTEGI
GOITB/02-06-06

Ekainaren 30ean Gasteiztik Herri herri AHTrik ez martxan parte hartzeko erraztasunak emateko, udalerrien arteko zatiak bizikletaz egingo dira, eta kalteturiko herriak, berriz, oinez zeharkatu dira.

MILA ELORTZA
'Euskaldunon Egunkaria' /02-06-07

BERAIEKDIÑO / Amaia Zabaleta



Baserría eta kode zibila

Euskal Herriko Zuzenbide Zibilari buruzko legearen aldaketa, Gipuzkoako Foru Zibilari dagokionez. 3/1999 LEGEA.

Lege berri honen helburu nagusia da gipuzkoar baserriaren eskualdaketa, baina lege

honek baserría zaitu gabe eskualdatu ahal izateko aukera eman nahi du.

Gipuzkoan kokatutako baserría duten baserriarrek foru zibil hau erabili ahal izango dute baserría eskualdatzeko; baserría esaten dugunean, etxe bizitza bera eta hari lotutako gainerako eraikin, areto, lursail, ustiaketa, aziendek, makinek... esatea nahi omen du.

Baserriarrek baserría eta hari lotutako ondasunak nahitaezkoa herederen baten alde lagatzeko aukera du, zaitu gabe. Aukeratua baserriaren oinordeko edo herederen bakarria dela ulertzen da. Eta halakoetan baserriaren eta hari lotutako ondasunen balioa

ez da sartuko seniparteak zehazteko orduan. Alegia baserría eskuratzen duenak ez du anaiarrebent esku dirurik jarri beharko.

Lege honetaz hainbat kontu esan eta idatzi da eta normalean legea goraitatzeko, baina praktikan badirudi egoera ez dela honen xamurra.

"Lege horrek baserría eta hari lotutako ondasunak herederen bati lagatzeko aukera eskaintzen du"

Indarrean jartzeko orduan notario eta jabetza erregistratzaileen galbahea gainditzea derrigorrezkoa denez egoera iluntzen hasten zaigu.

Aipaturiko profesional hauek ezjakintasun maila nabarmen

na azaltzen dute, neurri batean normala egoera berri bati buruz dihardugunez, baina azpimarraturiko ezjakintasun horren itzalean neurri bateko interes falta ere ikusten da. Ondorioak? Legeak dituen onurak murriztuta gelditzen direla, helburuak zalantzan jarritz.

Euskalerrian lanbide hauetan (Notario, Erregistratzaile...) ez dugu tradizio handirik izan eta ondorioak jasan beharko ditugu.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERRIGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar

MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91

ISSN
1130-6599

TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 14
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

ZAPATUA, 15
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15

DOMEKA, 16
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15

ASTELEHENA, 17
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74

MARTITZENA, 18
PUY, Barrenkalea 25. 943 76 19 63

EGUAZTENA, 19
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

EGUENA, 20
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 76 53 40

Osasun etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak. 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Erretiratuen etxea, Bergara. 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK. 943 76 05 18

Udal Euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

Santa Marina Domekak: 10:30.
Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:15.

San Pedro Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Sierbak Lanegunak: 19:30.

Osintxu Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu Domekak: 10:30.

Ubera Domekak: 10:30.

San Juan Domekak: 11:00.

Elorregi

Domekak: 10:30.
Labegarieta Domekak: 11:00.
San Lorentzo Zapatuak: 20:00.
Angiozar Domekak: 11:30.
Moja Zaharrak Lanegunak: 8:00.
Mizpirualde Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30.
Antzuola Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Uzarraga Domekak: 10:00.

URTE-MEZAK

Santa Marina Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.

San Pedro Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

ODOL EMAILEEN BATZARRA DOMEKAN ARRATEN

Ibarreko odol emaleen Batzar Orokorra izango da etzi, domeka, Arraten. Bazkarirako txartelak (23 euro), Puy eta Guallar farmazietan edo San Antonioko Agirrebeña jantzi denda.

AIZEPEREN BATZARRA

Aizepe elkartearen batzarra izango da ekainaren 29an. Batzarrari begira, bazkide-ek eskuragarri dituzte estatutu berriak.

SAN MARTZIALERAKO MAHAIK

San Martzial egunerako mahaiak alokatu nahi dituzten herritarrek kultura etxera jo dezakete. Izena emateko epea hilaren 20ra arte egongo da zabalik, 17:00etatik 21:00ak arte. Mahai bakoitzeko 18 euro ordaindu beharra dago.

ARANZADI IKASTOLAKO BATZARRA

Aranzadi Ikastolaren batzarra martitzenean, ekainaren 18an, UNEDeko aretoan. Lehen deialdia 18:30ean eta bigarrena 19:00etan.

OTABA JAIETAKO ZOZKETA

Elosuko Otaba jaietan egindako zozketan 3.100 zorbakia izan zen saritua.

JARDUNENAGENDA

OLINPIADAK

Gaztetxoan Arteko Olinpiaden barruan, herri jolasak domekan San Martin plazan, 16:00etan. Horren ondoren, sari banaketa.

TXALAPARTA IKASTAROA

Txalaparta ikastaroa hilaren 17tik 21era. Argibideak eta izenematea Jardunen. 943 76 36 61.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.


Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Louviot txirrindularia irabazle Bergaran


Philippe Louviot frantziarrak (ONCE) irabazi zuen 1992ko ekainaren 18an Bergaran amaitu zen Euskal Bizikletako etapa. Louviot bakarrik heldu zen Fraisko zuriko helmugara. Jende ugari batu zen Delgado, Chioccioli, Fignon eta tropeleko beste hainbat izar gertu-gertutik ikusteko.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Eskolantia”

Ikaslea (adinekoek, eta ironiaz, inoiz esana).
—An, badatoz gure eskolantia pe.
—Nere denporan enintzuan oso eskolante ona izan.



GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 7 **7 °C**

MAXIMOA Martitzena, 11 **28 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **35,6 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 5	16 °C	11 °C	11,3 l/m ²
Eguena, 6	19 °C	8 °C	0,2 l/m ²
Egubakoitza, 7	16 °C	7 °C	19,6 l/m ²
Zapatua, 8	13 °C	11 °C	1,3 l/m ²
Domeka, 9	20 °C	10 °C	1,2 l/m ²
Astelehena, 10	20 °C	11 °C	— l/m ²
Martitzena, 11	28 °C	7 °C	— l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOFILMAK

‘RENCOR’

ZUZENDARIA: MIGUEL ALBALADEJO. **AKTO-REAK:** LOLITA, JORGE PERUGORRIA, ELENA ANAYA.

HARIA. Cullerako jatetxeetan kantaldiak egiten diharduela, *Chelo Zamora*-k bere lagun izandako *Toni*-rekin egingo du topo. Eta mendekua etorriko da...

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



BERGARA Margoak

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

IGERILEKUAK/ Irailaren erdialdera, udako denboraldia amaitzearekin batera itxiko dituzte behin betiko

Aurtengo denboraldia izango da kanpoko igerilekuak zabalduko dituzten azkenekoa

MONIKA BELASTEGI

Bihar irekiko dituzte bainurako kanpoko igerilekuak. Aurtengo izango da, gainera, zabalik egongo diren azkena. Eta oraindik zehaztuta ez dago, baina baliteke barrukoak ere ez zabaltea uda ondoren. Igerileku berriak egiteko proiektua gainean dugu.

Bihar, ekainak 15, zabaldu eta San Martin jaiekin batera, irailaren 15ean, itxiko dituzte kanpoko igerilekuak, eta ordutegiari dagokionez, ohikoa izango dute: 10:00etatik 21:00etara, eta irailean ordubete goizago itxiko dute, hau da, 20:00etan.


Hauxe izango da, gainera, kanpoko igerilekuen azken denboraldia. Irailean, behin betiko itxiko dituzte. Barrukoekin ere gauza bera gerta liteke, hau da, uda ondoren ez irekitzea, baina Udalak oraindik gaia aztertzen ari da. Horretarako, igerileku berrien eraikitze lanak nola eta zein faseetan gauzatuko diren aztertzen eta zehazten ari dira Alvaro Pérez de Amezaga eta Jorge Muntañola, proiektua egin duten arkitektoak Udalaren eskariz: oraingo instalazioen eraispenean epeak eta berriaren eraikitze faseak noiz eta nola egin, azken batean. Ekainaren 25ean aurkeztuko dute azterketa hori Udalean.

PROIEKTU BERRIA BERTATIK BERTARA

Proiektu berria hurbil dago, eta dagoeneko nabari da haren eragina. Esaterako, ez da tabernarik egongo aurrerantzean. Duela hilabete eten egin zuen Udalak tabernaren azken arduradunekin zuen akordioa, birritan santsionatu ondoren. Eta adjudikazio berriak lau hilabete eskas iraungo zukeenez, freskagarri, kafe eta ogitarteko sei makina jarritzea erabaki dute.

Irailean igerilekuak itxteak bazkideengan ere izango luke eragina, txartelak abendura arteko iraupena duelako. Esan bezala, oraingo ez dago ezer erabakita, baina zabalduko ez balituzte, bazkideei erantzuteko bi aukera aztertzen ari da Udala: batetik, txartel amankomunatuarekin bailarako beste igerileku batzuetara joateko aukera izatea bazkideek; eta, bestetik, irailetik abendura arteko kuota zati proporzionala itzultzea.

Horrez gain, igerilekuak itxiko balituzte ere, gimnasio zerbitzua ematen jarraitzeko ahalegina egiten ari da Udala, baina tokiz aldatuta. Gimnasioa Labegarailetako kirolgunearen atzeko aldean dagoen eraikinera eramateko aukera ikertzen ari dira. Dena dela, eraikina egokitu egin beharko litzateke eta horren kostua zein den ikusteko dago.



ARTXIBOA

Proiektu berriak barruko eta kanpoko igerilekuak eta Ipintzako futbol zelaia hartzen ditu kontuan.

2.518 SINADURA

Proiektu berria Udalean dago dagoeneko, eta Udal arduradunek berrikusi eta aztertu behar duten arren, argi dago ez duela 50 metro-

ko igerilekua mantenduko, Victoriano Gallastegi alkatearen esanetan.

Ildo beretik, Igeri elkarteak eta Beti Busti elkarteak ekaina-

ren leian aurkeztu zituzten Udalean hiru hilabete barrera jasotako 2.518 sinadurak. Horrekin batera idatzi bat ere aurkeztu zuten, Udal arduradunekin eta

proiektuaren teknikariek bilera eskatzeko. Alkateak adierazi duenez, bilera egingo dute bi elkarteetako ordezkariekin, baina Udalak erabakia hartuta du.

31 urteko historia


Duela hogeita hamaika urte eraiki zituzten barruko igerilekuak edo igerileku estaliak. 1970. urteko maiatzaren 4an egindako osokoen bilkuran eraikuntza lanak kontratatzeke baldintzak onartu zituzten, eta ordurako, proiektua onartuta zegoen. Proiektu tekniko hura, Gasteizko Francisco Martinez de Lezea ingeniari teknikoak egin zuen, eta obren zuzendaritza ere bere kargu egon zen.

Handik denbora gutxira esleitu zituzten barruko igerilekuak eraikitzeke lanak, abuztuaren 27an, hain justu ere, Arregi Construcciones enpresari, 6.581.474 pezetatan (39.555 euro). Eta ia urte betera, 1971. urteko abuztuaren 18an, inauguratu egin zituzten.

Hirurogeita hamargarren hamarkadan eraiki zituzten arren, Agorrosingo gunean kirol instalakun-


tzak garatu eta aldi berean ikastetxe publikoa eraikitzeke asmoa lehenagokoa da. 1968ko datuen arabera, Agorrosingo gunean eraiki zitezkeen instalakuntzen gaineko azterketak egin zituzten. Gainera, garai hartako Udal agintariendako leku egokia zen gune hura bai igerilekuendako baita ikastetxe publikoa egiteko ere: zabala, laua, eta 1967ko abenduaren 31n trenak kendu egin zuten, horrek gunea guztiz libre utzi zuen, eta aipatutako instalazioen eraikuntza erraztu.

Igerileku estaliak eraiki, eta handik denbora laburrera, kanpokoak egin zituzten. 1972. urteko martxoaren 13an onartu zituzten kanpoko igerilekuak egiteke baldintzak, eta hurrengo urtean, 1973an, negurako igerileku estaliak eta udarako estali gabeak zituzten Bergarako herriarrek.



1970ean hasi ziren barruko igerilekuak eraikitzen.

BUA (J. IDIGORAS FONDOA)



Kanpoko igerilekuak 1972. urtean barrena eraiki zituzten.

BUA (J. IDIGORAS FONDOA)

Bihar, zapatua, irekiko dituzte kanpoko igerilekuak bainurako, ohiko ordutegiarekin

Oraingo igerilekuak erausi eta berriak eraikitzeke epeak zehazteke eskatu die Udalak arkitektoei

Horrela onartuta dagoela eta, 50 metroko igerilekua kendu egingo dutela dio alkateak



Soraluce S. Coop. enpresako gerente Rafael barrenetxea eta Victoriano Gallastegi alkatea hitzarmena sinatzen.

OSINTXU/ Datorren urteko irailerako bukatuta egon liteke zubia

Osintxun zubi berria egiteko akordioa sinatu dute

MONIKA BELASTEGI

Joan den egubakoitzean sinatu zuten Udalak eta Soraluce enpresak Osintxuko zubia eraikitzeko hitzarmena. Horren arabera, urriaren 31 baino lehen esleitu beharko ditu Soraluce lanak eta abenduaren 31 aurretik zubia eraikitzeko lanak hasita egon beharko dira.

Victoriano Gallastegi alkateak eta Soraluce S. Coop. enpresako gerente Rafael Barrenetxeak sinatu zuten egubakoitzean zubi berria eraikitzeko hitzarmena. Zubi horrek industriagunea Osintxuko errepide zaharrarekin lotuko du, eta handik igaroko dira industriaguneko ibilgailuak. Gaur egun, Osintxuko zubi bakarrak betetzen du funtzio hori (XVII. mendekoa), eta akordioarekin babestu egingo dute.

Zubi berria eraiki beharra aspalditik datorren kontua den arren, alkateak Soraluce enpresaren kolaborazioa azpimarratu zuen. Barrenetxeak, berriz, arrazoi bi aipatu zituen, besteak beste, atzerapen horretarako: bate-tik, erabilpen publikoa izango duen zubi bat enpresa pribatu batek eraiki beharra asimilatzea; eta, bestetik, enpresaren ondoan dauden lursail batzuk erosteko negoziazioak.

Abenduaren 31 baino lehen zubi eraikitzen hasteko konpromisoa hartu du Soralucek

Horrekin guztiarekin, Zubi Gerondon eraikiko dute, eta, bide batez, han goi partean dauden baserriek ere irteera emango die.

2003KO IRAILERAKO BUKATUTA

Hitzarmenak zubia eraikitzea behartzen du Soraluce enpresa, eraikitze lanak urriaren 31 baino lehen esleitzera, eta lanekin abenduaren 31 baino lehen hastera. Hori horrela, eta hitzarmen egunean adierazi zuten, zortzi edo bederatzi hilabetean bukatuta egon liteke, hau da, 2003ko irail aldera. Aurrekontuari dagokionez, 750.000 euro inguruko aurrekontua izango du.

Bestalde, XVII. mendeko zubiaren gaineko zaharberritze azterketa laster egingo dutela aipatu zuen Victoriano Gallastegi alkateak, baina egokitze lanak ez dituztela hasiko zubi berria eraikitzen duten arte.

Bergarara ere helduko da 'Herriz herri AHTrik ez' martxa

MONIKA BELASTEGI

Ekainaren 30etik uztailaren 6ra, **Herriz herri AHTrik ez** lelodun martxa antolatu du AHT Gelditu! Elkarlanean taldeak. Euskal Y-aren egitasmoak kaltetutako herriak lotuko ditu ibilaldiak.

Uztailaren 1ean iritsiko da Bergarara ibilaldia, eta helburua da ekologian nahiz gizarte arloetan ondorio larriak eragingo lituzkeen Euskal Y-aren egitasmoa gelditzeko beharra aldarrikatzea.

Hilaren 30ean Gasteizen hasiko da eta uztailaren 6an Bilbon bukatu. Ibilbidean, AHTk kaltetutako herrietatik igaroko da; AHT Gelditu! Elkarlanean taldeko kideen esanetan, ingurumenari eraso larriak eragiteaz gain, eredu jakin bat ezartzea dakarren azpiegitura erraldoi horren inguruan jendea ohartarazteko, informatzeko eta mobilizatzeko.

Jendeari ibilaldian parte-hartzeko erraztasunak emateko,

udalerrien arteko zatiak bizikletaz egingo dituzte, eta herri kaltetuak, berriz, oinez zeharkatuko dituzte.

Ibilbideari Bilbon, uztailaren 6an, 13:00etan, egingo duten manifestazioak emango dio amaiera.

UZTAILAREN 1EAN, BERGARAN

Uztailaren 1ean iritsiko da ibilaldia Bergarara, Legutiotik. Oraindik ere zehaztu gabe dagoen arren, deialdia egingo dute herri sarreran jendea biltzeko, eta beste ekitaldi batzuk ere egingo dituztela aurreratu du Mila Elortza Angiozarko auzo-alkateak.

Bestalde, ibilaldiaren aurretik ere ekitaldi bi antolatu ditu Bergaran AHT Gelditu! Elkarlanean taldeak: datorren martitzenean, ekainaren 18an, hitzaldia egingo da Pol-Pol aretoan; Xabier Larrañagak *Ondarea eta Natura* gaia izango du hizpide 19:30etik aurrera. Bestetik, ekainaren 28an, kontzertua egingo da gaztetxean, 22:30etan, Folk-core eta Fly Shit taldeen eskutik.



Apirilean, Bergaratik Angiozarrerako beste ibilbide bat antolatu zuen talde berak.

LABUR

Eguaztenean hasita auzoko jaiak ospatuko dituzte San Antonion domekara arte

Ekainaren 12an, txupinazoarekin hasi zituzten jaiak, 19:30ean. Hala ere, egun nagusia eguna izan zen, San Antonio eguna. Jaiak, baina ez dira hor amaituko. Ekainaren 15ean, 12:30ean, CDa aurkeztuko dute; baita bazkari oparoa egin ere. Ondoren, 18:30etik aurrera, Molina txarangak alaituko du auzoa, eta 16an, 16:30ean, II Honorio Agirregabiria txirrindulari Memoriala izango da.

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

BERGARAN
BULEGO BERRIA



INMOBILIARIA

BERGARA LEGAZPI
Ibargarai 3. Santikutz 8.
943 76 97 97 943 73 05 25

10 URTEKO
ESPERIENTZIA!

PINTXO eta BOKADILUOK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

ELKARRIZKETA

MICHEL MARMIER/BIZKARREZURREAN ADITUA

"Gure autoak bizkarrezurra baino askoz hobeto tratatzen ditugu"

MONIKA BELASTEGI

Eguenean, Bizkarrezur-
rreko gaitzak nola pre-
benitu izeneko hitzaldia
egin zuen Michel Mar-
mier medikuak kultura etxean.
Haren esanetan, gaurko gizarte-
an gero eta hedatuago dauden gai-
tzak ei dira bizkarrezurrekoak.

Bizkarrezurreko gaitzak gero eta hedatuago daude?

Bai. Oso gizarte mekanizatu-
an bizi gara. Duela 50 urte eta
gaur egun oso modu ezberdine-
an erabiltzen dugu gorputza: igo-
gailua erabiltzen dugu; sofan ese-
rita egoten gara telebista ikusten,
ordenagailuaren aurrean egiten
dugu lan; umeeek ere ikus-entzu-
nezko jolasetan jarduten dute...
Poliki-poliki gorputza atrofiatu
egiten da, ornoak elkarrekin man-
tentzen dituzten giharrek atro-
fiatu egiten dira eta horrek guz-
tiak eragina du bizkarrezurre-
tan.

Hogeita hamar urtetik gora
daramat lanbide honetan eta argi
ikusten dut joera hori; bizitzeko
dugun moduak areagotu egiten
ditu bizkarrezurreko gaitzak.

Zein dira gaitz komunenak?


Bizkarrezurrean bertan eta
gorputz adarretan (besoak, sor-
baldak, ukondoak...) eragiten
dutenak: inurridurak, zerbika-
letan mina, bertigoia, buruko-
mina, memoria falta, kontzen-
trazio falta...

Daramagun bizitza sedentarioa da eragile nagusia?

Ez da bakarria. Beste bi ere
aipatuko nituzke: batetik, bizka-
rrezurreko traumak, hau da,
istripuen eraginez jasandakoak,
auto, eski, bizikleta... istripuak;
eta, bestetik, tentsio emozionala,
estresa, azken baten.

Bizkarrezurraren garrantziak jabetzen gara?

Ezta gutxiagorik ere. Jendea
ez da konturatzen bizkarrezurra
garrantzitsua dela nerbioak eta
gorputz adarrak kontrolatzen
dituelako. Baita hezur-muina hez-



"Bizkarrezurreko gaitzen eragile nagusiak bizimodu sedentarioa, kolpeak eta estresa dira"


teak pankreasa, urdaila, uteroa... kontrolatzen dituelako ere. Zuzenean edo zeharka, gorputzeko organo guztiak kontrolatzen ditu.

Beste organo batzuekin egiten dugun bezala, kontrolatu behar-
ko genuke bizkarrezurra noizean behin azterketak eginez.

"Gaitzak ekiditeko, urtero errebisioa egitea komeni da; baita posturak zaindu ere"

Autoari egiten dizkiogu erre-
bisioak. Hobeto tratatzen ditugu
autoak bizkarrezurra baino.
**Beraz, zer egin behar-
kenuke bizkarra zaintzeko?**

Urtean behin errebisioa egin
gaitzak prebenitzeko, baita pos-
turak zaindu ere.



Irizar jauregiko lorategia txukuntzen

Irizar jauregiko lorategia konpontzen aritu dira astean zehar. Lorategia hainbat zatitan banatuta dago, eta zati horien artean dauden bidetxoak dira konpondu dituztenak astean barrena. Bidetxo horietan harri soltea zegoen orain arte, eta oso eroso ez omen zenez, hori kendu eta asfaltatzea erabaki du Bergarako Udalak.

LABUR

Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten elkarteendako dirulaguntzak, erabakita




Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten elkarteendako dirulaguntzak erabaki ditu Udalak. Guztira, 19.989 euroko laguntza banatuko die aurtien honako taldeei: Aransgi gorren eskolarendako, 3.246 euro; Atzegirendako, 3.075; Odol Emaileendako, 2.904; Kari-tasendako, 3.246; Behar Zana taldearendako, 1.195; San Joxepe elkar-tearendako, 3.246; eta Aspacerendako, 3.075 euroko laguntza.

Turismo Bulegoa ireki dute eta irail amaiera arte egongo da zabalik, ohiko ordutegiarekin

Ekainaren 1ean ireki zuten Turismo Bulegoa, eta irailaren 30era bitartean egongo da zabalik. Asteko egun guztietan egongo da zabalik, eta honako ordutegia izango du: astelehenetik zapatara, 10:30etik 14:30era eta 16:30etik 19:30era; domeketan, berriz, 11:30etik 14:30era.


Jolasleku Ibiltariaren azken saioa gaur; Usondo parkean, 17:00etatik aurrera

Jardun elkarteak antolatutako Jolasleku Ibiltariaren azken saioa egingo dute gaur, egubakoitza, 17:00etatik aurrera, Usondo parkean. Sei eta hamabi urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta dago eta euskal kantu eta jolasen bidez, euskaraz jolas egiteko baliabide egokiak eskaini eta bereziki ahozkotatzen lantzea du helburu.

-  Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
-  Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
-  Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63. BERGARA



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A



AGURAINEN PERURENATARREKIN

San Martin Ikastetxeko hainbat ikasle, irakasle eta guraso, 50 lagun, guztira, Euskal Eskola Publikoaren aldeko jaialdian egon ziren joan den ekainaren 2an, Agurainen. Hainbat ekitaldi egon zen hantxe egun osoan barrena eta ez zuten aspertzeko denborarik eduki; tartean, Perurena aita-seme harri-jasotzaileen erakustaldia ikusteko aukera izan zuten. Bide batez, Iñakirekin eta Iñaziorekin argazkia ateratzeko aukera ere izan zuten neska-mutikoek.



KIOSKOA, LEHENGO TOKIRA

Egunkariak saltzeko kiosko berria jarri zuten iaz San Martin plazan, lehenago baino handiagoa eta altuagoa. Gainera, tokiz aldatu zuten. Seminario aurrean jarri beharrean, banketxearen aurreko aldean jarri zuten. Horrek, baina, kexa bat baino gehiago sortu zuen bizilagunen artean. Horregatik, joan den asteko egunean, bere jatorrizko tokian jarri zuten berriro kioskoa.



A ZE PERRETXIKO MORDOIA!

Hamalau kilo eta erdi perretxiko batu zituen joan den astean Pedro Andrinuak. Goizeko seietan etxetik irten eta Errioxara joan zen Pedro. Hantxe batu zituen perretxikook, eta eguerdiko ordu batera-ko etxean zegoen bueltan hamalau kilorekin. Gero, lagunartean afaria egin zuen Pedrok. Horrenbeste kilorekin, baina, beste afari batzuk egiteko aukera ere izango du oraindik. On egin!



XAMATZ DANTZA TALDEA OURENSEN EGON DA

Galizia aldean pasatu dute asteburua Xamatz dantza taldeko kideek, Ourense, hain zuzen ere. 29 lagun joan ziren, guztira, dantzari, txistulari eta gainerako musikariak kontuan hartuta. Ourenseko jaiak ziren eta kanpoko hainbat dantza talderen erakustaldia egon zen domekan; tartean, Xamatz taldeak parte hartu zuen, eta euskal dantzak galiziarrei gerturatu zizkien. Ourenseko dantza taldea iaz Bergaran egon zen, Zarauzko folklore jaialdira etorri zirela aprobetxatuz, eta ordutik daukate Xamatzekin harremana. Aurten ere, uztailean, Bergaran izango dugu talde galiziarra.

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 Ibargarai 44-46
BERGARA BERGARA
943 76 20 49 943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma

Pintura zerbitzu osoa

Moketak

943 76 14 60

607 447 494

943 76 59 59

Bergara

ARDATZA

Brikolajea

Ateak eta zokaloak

Horma-armairuak

Sarrailak

Heldulekuak

Koadroak markoan ipini

Era guztietako moldurak

Apalak

Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

BERGARARRAK MUNDUAN

İÑAKI ALBERDI

34 URTE / DISEINATZAILEA / BARTZELONA

“Bizi garen auzoa, Gracia, herritxo bat bezalakoa da; oso gustura gaude hemen”

AINTZANE IRIZAR

Ehungintzako Diseinuko ikasketak egitera joan zen İñaki Bartzelonara duela hamabost urte. “Ikasketak amaitu eta Bergarara itzultzeko asmoa neukan, baina hemen-txe jarraitzen dut”, azaldu digu İñakik.

Ikasten ari zela, kooperatiba bat jarri zuen Manresan, hainbat ikaskiderekin batera. “Hiru urtez lan egin genuen kooperatiba horretan, eta azkenean, porrot egin zuen; dena dela, esperientzia ona izan zen”, gogoratzen du.

Diseinatzailea da İñaki, ehungintzako diseinatzailea, hain zuzen ere: janzten ditugun erropen irudi, marrazki, letrak... horiek guztiak diseinatzen lan egiten du.

Gaur egun bere kontura lan egiten du, *free-lance* moduan. Baina bestelako lanak ere egiten ditu, sukaldari, esaterako.

“Bartzelonan bizi nintze-la ezagutu nuen Esme, nire bikotekidea”, azaldu digu. Baina ez pentsa kataluniarra denik, mondragoetarra da.



Esme ere Bartzelonara joan zen ikastera eta hantxe ezagutu zuten elkar. Orain bi alabatxo daukate: Haizea eta June, kataluniar eta euskaldunak, aldi berean; etxean ere bietara berba egiten dute.

“Familiaren, lagunaren eta kaleko giroaren hutsunea

“Familiaren, lagunaren eta kaleko giroaren hutsunea nabaritzen dut, gehienbat”

nabaritzen dut, gehienbat”, diosku İñakik. Poteoaren eta kaleko giroaren hutsunea nabari arren, Gracian, bizi diren auzoan, oso gustura duedela adierazi digu: “Gracia Bartzelonako auzo bat da, baina herri txiki bat bezalakoa da; denbora batera, bizilagun guztiek ezagutzen zaituzte, eta baita zuk beraiek ere”.

Ez ei dute alde batera laga Euskal Herrira itzultzeko aukera: “berba egin izan dugu horren gainean, baina, alde batetik, lanaren arazoa dago, bestetik, alabak... Ez dakit... Dena dela, oso gustura bizi gara Gracian”.

MINGAINARITIRAKA



Marisabel Moñux

OLABE OKINDEGIKUA

Marisabelek 45 urte dauka, eta oin dala hogeita bost urtetik egiten dulan okindegixan. Oso gozozalia dala esan dosku; hortaz, ez dabil, ez, tokirik onenian lanian.

Noiztik daukazue okindegixa?

Betidanik; lehen, enpresa bat giñan, eta oin dala bost urte, banandu egin giñan, eta beste enpresa bat gara: Olabe.

Ogizalia izango zara, ezta?

Bai, oso zalia, gaiñera.

Eta ogixakin batera jateko gustoko bazkari bat?

Arrautza frijittua, txorixua eta piparrak izugarri gustatzen jat.

Zure lanian ze da gehixen gustatzen jatzuna?

Jentiakin egotia; gaiñera, oso berrikeria naizenez, asko gustatzen jat dendan jentia atenditzia.

Eta gutxien?

Ohetik goiz jaikitzia asko kostatzen jat.

Denpora librian ze egitten dozu?

Normalian, *tumbing* egitten dot, botata egon. Irakurtzia be asko gustatzen jat.

Liburu bat?

Gora, Rabindraan Tagore-rena; hamabost bat urte neuzkala irakurri neban eta asko markatu nindduan.

Kolore bat?

Moraua beti gustau izan jat.

Zapore bat?

Gauza dultze danak gustatzen jat.

Toki txarrian zabitz, hortaz, lanian.

Ba, bai; handik eta hemendik pikatzen ibiltzen naiz.

Urtaro bat?

Negua; beruak ez dost onik egitten: asko nekatzen naiz beruakin. Gaiñera, okindegixan bero eukitzen dogunez...

Hortan, oingo eguraldixakin pozik egongo zara.

Bai, nik ez daukat bat be kejarik.

AINTZANE IRIZAR

NIRE BIDAIAHURA / Aitor Ruiz

KUBA / 2001eko urrian

Nire asmoa zen bidaia merkea egitea; Interneten begira aritu nintzen, eta New Yorkera joateko hegazkin txartelak merke topatu nituen. Dena dela, irailaren 11ko gertaeren ostean, bisa lortzea ia-ia ezinezkoa zela esan zidaten. Horrela, Kubarako bidai merke bat lortu eta haraxe joan nintzen.

Neu bakarrik joan nintzen, eta hamaika egun egin nituen hantxe. Aurrez Kuban egondako lagun batzuk gomen-datuta, Habanako etxe batera joan nintzen, 60 bat urteko andre baten etxera. Kariño handia hartu nion emakume hari, ama izango balitz bezala tratatzen ninduen. Habanan egin nuen denborarik gehien, baina Cayo Cocora ere joan nintzen hiru egunetarako.

Nahikoa zorte txarra eduki nuen; alde batetik, lehendabiziko zortzi egunetan ez nuen eguzkirik ikusi ere egin. Eta bestetik, Cayo Cocon nengoe-la, Michelle urakana pasatu zen Kubatik. Cayo Coco uhartetxo bat da, eta errepide batek lotzen du Kubara. Urakana zetorrela-eta, Kubara eraman gintuzten autobusez. Haize bolada handiak ibili ziren, baina gure parean, behintzat, urakana ez zen Cayo Cocotik Habanara itzuli nintzen berriro.

Kubara joan baino egun bat lehenago, kasualitatez, Bergarako hiru lagun ere hara zihozazela enteratu nintzen, eta eurekin pasatu nituen bi egun Habanan. Malekoia eta Habana Vieja asko gustatu zitzaizkidan. Dena dela, aipatzekoa da azkenaldian gero eta polizia gehiago dagoela han. Kubatar lagun batekin ibiltzen nintzen han, eta behin baino gehiagotan geratu gintuzten poliziek.

Merezi du Kubara joateak eta hango bizimodua ezagutzeak; berriro bueltatzeko gogo badaukat. Ea hurrengoan zorte hobea dudan!




“Cayo Cocon nengoe-la Michelle urakana pasatu zen”

“Hiru bergararrekin elkartu nintzen Habanan”

AINTZANE IRIZAR



Aitor, Jose Luis, Rioja eta Jabier.



Ur-bide
ITURGINZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

INGELESA

ikastaro trinkoak

Ekainaren 27tik uztaillaren 24ra arte

Haurrak, gazteak eta helduak

Prestakuntza berezia
First Certificate titulua
ateratzeko



School of English

INFORMAZIOA:
Ibargarai 31,
barruko plaza.
BERGARA
Tf. eta faxa
943 76 03 53.



GAIA/ Triatloia

Ricardo De Goñi, herriko onena zapatuan jokatu zen Debagoieneko Triatloian

EDU MENDIBIL

Ricardo De Goñi izan genuen herriko onena joan den zapatuan Urkulun eta Arrasaten jokatu zen Debagoieneko II. Triatloian. Virginia Rubio, bestalde, emakumezkoetan seigarrena izan zen. Bergarako hamar lagunek lortu zuten triatloia amaitzea.

Antxintxika Debagoiena Taldeko Ricardo De Goñi triatleta bergararra 10. postuan sailkatu zen zapatuko triatloian. De Goñik lasterketa bikaina egin zuen, bi ordu, 47 minutu eta 13 segundoko denborarekin. Irabazlea Héctor Llanos gasteiztarra (Excelent Center) izan zen (1:59:58) eta Jon Aperribai arrasatearrak (Antxintxika Debagoiena) eskuratu zuen bigarren postua (2:01:05). Hirugarren postuan Atlético San Sebastián taldeko Garikoitz Etxebeste sailkatu zen (2:01:38).

Emakumezkoen kategorian, Paqui Márquezek (Valle Egues Hiruki Triatlon) irabazi zuen, 2:29:06 denborarekin. Virginia Rubio bergararra (Antxintxika Debagoiena) 6. postuan iritsi zen helmugara, 2:59:25 egin zuen Virginiki. 152 partaide izan ziren zapatuko triatloian eta horietatik, 134 iritsi ziren helmugara. Taldeka, Antxintxika Debagoiena bigarren izan zen, Atlético San Sebastián taldearen atzetik.



XABI URZELAI

Antxintxika Debagoiena Taldeak lan txukuna egin zuen zapatuan. Argazkian, Bergara, Antzuola eta Soralezeko taldekideak.

Bergararren sailkapena Debagoieneko II. Triatloian

Izena	Igeriketa	Bizikleta	Korrika	Denbora	Postua
Ricardo De Goñi	21:44	1:09:48	32:48	2:07:13	10
Unai Alberdi	20:45	1:12:23	34:38	2:07:46	15
Aitor Rementeria	25:23	1:10:56	35:53	2:12:12	27
Aritz Kortabarria	25:29	1:10:41	38:04	2:14:14	36
Gotzon Mendizabal	25:26	1:15:40	40:40	2:21:46	56
Aitor Sotil	27:51	1:16:54	38:16	2:23:01	58
Xabier Uribesalgo	28:13	1:20:01	36:26	2:24:40	65
Esteban Lazkano	25:27	1:19:50	41:44	2:27:01	76
Aitor Laskurain	27:57	1:16:45	44:01	2:28:43	81
Virginia Rubio	36:10	1:36:00	45:15	2:59:25	6 (emakum.)

Aitor Delariberettek snoweko bi lasterketa irabazi ditu aurten

E.M.

Snowboard lasterketetan diharduen Aitor Delariberette bergararra (22 urte) bi proba irabazi ditu aurten, Andorran eta Baqueiran, hain zuzen; biak ere, *boardercross* modalitatean: "Saltoak eta peralteak nahasten dira, motokrosean antzera, eta oso ikusgarria da *boardercross*-a", diosku Aitorrek. Denboraldia atzean lagata, fisioterapiako azterketak prestatzen buru-belarri dihardu egunotan, Bartzelonan. Pozik dago egindako denboraldiarekin: "Nahiko emaitza onak lortu ditut

eta apirilean Suitzan jokatu duen Munduko Kopara joatea ere esperientzia ona izan zen. Hala ere, Suitzan jipoi ederra eman ziguten frantsesek, estatubatuarrek edo austriarrek. Haien aldean, asko hobetu beharra daukagu".

Datorren denboraldiari begira, Munduko Kopan parte hartzearekin amets egiten du Aitorrek: "Ibon Idigoras Zarauzko lagun batek eta biok entrena-tzaile batekin hasteko ideia aztertzen dihardugu, hobeto entrenatzeko asmoarekin. Azken baten, Munduko Kopa oso exigentea da eta ordu asko sartu behar dira".

ZORTZI URTE LEHIATZEN

1994-95 denboraldian lehen txapelketa izan zuenetik hona, progresio nabaria azaldu du. Duela bi urte ez zuen lesioekin zorterik izan, baina iaz, berriro lehen postuetara itzuli zen. Hori dela eta, Unibertsitate mailako Munduko Txapelketan jardun zuen, Zakopan, Polonian: eslalomean 8., erraldioan 14. eta *boardercrosse*-an 14. sailkatu zen Aitor.

Bere burua definitzerako orduan, zera dio Aitorrek: "Teknika aldetik hobera egin dezaket, baina lehiatzeko orduan, nerbioei eustea izaten da zailena".



ARTXOBA

Aitor Delariberette bi aldiz izan da aurten podiumeko lehen postuan.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

KIROLA ZEURE ESKURA

PILOTA

Gutiérrezek Laskurain ordezkatu du Bergara Hiriako finalean

Muguruzak eta Argotek finalerdian galdu zuten, Sorarrainen eta Báezen aurka (16-22)

E.M.

Martitzenean, hilaren 18an, Bergara Hiri Txapelketako finalak jokatu dira Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Amateur mailako finalean Igor Gutiérrez bergararrak profesionaletan debuta egin berri duen Aritz Laskurain soraluzetarra ordezkatu du.

Amateur mailako finalean Hui-z-Gutiérrez eta Sorarrain-Báez bikoteak izango dira aurrez aurre. Hui-z-Gutiérrezek 22-19 irabazi zieten Eguzkizari eta Gutiérrezi aurreko astean eta partidu hori Aritz Laskurainek amateur-urretan jokatu zuen azkena izan zen, ekainaren 9an, debuta egin zuen-eta profesionaletan, Eibar-ko Astelenan. Gauzak horrela, Igor Gutiérrezek izango da bere ordezkaria martitzeneko finalean.

Ander Muguruzak, berriz, ez zuen finalerako sailkatzerik izan, berak eta Argotek 16-22 galdu baitzuten Sorarrain eta Báez bikotearen aurka, martitzenean jokatutako finalerdian. Zale ugari bildu zen Udal Pilotalekuan, baina Muguruzak eta Argotek ez zuten bere mailarik onena azaltzerik izan, aurrean bikote gogorra izan zuten-eta.

Anderrek ez du aste ona izan, domekan, Elgetako lau t'erdiko txapelketako final zortzirenetan, Agestaren aurka galdu zuelako, 15-22. Anderrek partidu ona egin zuen eta partidua berdinduta izan



Muguruzak eta Argotek ezin izan zuten finalerako sailkatu martitzenean.

zen amaierara arte. Hala ere, Agesta txapela janzteko fabrikatutako bat dugu. Izan ere, ia izkio edizioan Agesta finalera iritsi zen Elgetan.

PROMESETA ERE MAILA ONA

Bestalde, martitzenean, promes mailako finala Olaetxea-Irureta

eta Lasa-Zubieta bikoteek jokatuko dute. Orain arte ikusitakoaren arabera, Olaetxea aurrelari lizartzarra eta Etxarriko Zubieta atzelaria izan dira txapelketako onenak beharbada. Martitzenean elkarren aurka jokatuko dute. Jokatuko diren bi finalak ikustekoak izango dira.

IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETA

PARTIDUAK

ZAPATUA 15

FUTBOL 11

09:00: Gore-Torrekua
10:15: Matxakategi-Fo Fo Fo

20:00: Pentol's Team-Arrano

21:00: Ogizun-Arloteak
21:00: Ou Pitxou-Báztangak

ASTELEHENA 17

FUTBOL 11

19:15: Bicistua-Osintxu
20:30: A Ze Flaxa Guipuzcoana-The Parpol

EGUENA 20

BETERANOAK, Futbol 7

19:30: Ezinleike-Bar Canalejas
19:30: Arloteak-Bildurbarek Opel Lam
20:30: Guipuzcoana-Mongatxurak
NESKAK, seniorrak
20:30: Arrano-Báztangak

MARTITZENA 18

NESKAK, alebinak

18:00: Bergarako Sorgintxoak-Mutilzaleak
18:00: Soraluze B-Irabazleak
18:45: San Martin-Antzuola

NESKAK, kadeteak

19:00: Soraluze-Elgeta
19:00: Mariaren Lagundia-Arloteak

NESKAK, seniorrak

20:00: Potzu Ta Zapaburuak-Plaust

EGUBAKOITZA 21

NESKAK, alebinak

18:00: Finalerdia

NESKAK, kadeteak

19:00: Mariaren Lagundia-Elgeta
20:00: Arloteak-Soraluze

NESKAK, seniorrak

20:00: Pentol's Team-Plaust
21:00: Arloteak-Potzu Ta Zapaburuak
21:00: Ogizun-Ou Pitxu Ou

Kadete mailako txirrindulari lasterketa izango da domekan

E.M.

San Antonioko jaien barruan, 66. San Antonio Saria (II. Honorio Agirregabiria Memoriala) jokatuko da domekan, hilaren 16an, 16:30ean hasita. Lasterketa lehen eta bigarren urteko kadeteen Gipuzkoako Txapelketa izango da eta txirrindulariek 70 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Proba 18:00ak aldera jokatuko da, San Antonioko helmugan. Ibilbidea laua izango da, txirrindulari gaztetxoek ez dute-eta tartean mendaterik izango.

PALMARES BIKAIKOKO PROBA

San Antonioko lasterketa 1950. urtean hasi zen jokatzen eta irabazleen artean Jesus Loroño (1955), Anton Barrutia (1957), Jesus Aranzabal (1962), Jose Mari Errandonea (1964), Gregorio San Miguel (1965), Jose Nazabal (1973), Antxon Lekuona (1979), Abraham Olano (1986) edo Unai Osa (1991) aurkitzen dira. San Antonioko probaren bultzatzailetako bat Honorio Agirregabiria zena izan genuen eta joan zen urteko edizioetik probak bere izena darma, omenaldi gisa.

Txirrinduzaleen irteera Pirinioetara uztailaren 12an eta 13an

E.M.

Begarako Txirrindulari Elkartearen urteroko irteera Tourmaletara eta Luz Ardidenera izango da aurten, uztailaren 13an. Irteera bezperan egingo dute, uztailaren 12an, eta herriko zale guztiak gonbidatu nahi dituzte.

Herriko txirrindulazaleen irteerara joateko ez da beharrezkoa elkarteko bazkide izatea. Esan bezala, uztailaren 12an aterako dira Bergaratik, autobusez, 18:00ak aldera, eta hurrengo egunean itzuliko dira, 22:00ak inguruan. Zapatu goizean izango dute bizikletan ibiltzeko aukera. Egubakoitzean Luz Sant-Sauveur ondoko aterpetxe baten lo egin ondoren, Tourmaletara eta Luz Ardidenera joango dira. Guztira, 80 kilometro inguruko ibilbidea prestatu dute, baina nahi duenak aukera izango du ibilbide motzagoa egiteko, Luz Ardidenera igoz barik.



Bergara Txirrindulari Elkartekoek duela sei bat urte Tourmaletara egindako irteerako argazkia.

Irteeraren prezioa zehazteko dago oraindik, baina 25-30 lagunekoko taldea osatzekotan, 60 euro ingurukoa izango dela aurreratu

digu Txirrindulari Elkarteko kide Txiki Menorrek. Prezioan bidaia, egubakoitzeko afaria, ostatua, zapatuko gosaria, ibilbideko

hamaiketako eta zapatuko bazkaria sartzen dira. Izena emateko epea ekainaren 22ra arte izango da zabalik eta interesatuek 943

76 58 62 edo 943.76 17 45 telefono zenbakietara (Txiki Menor) jo dezakete.

Joan den urteko udan, Laredora irteera egin zuten herriko txirrindulazaleek. Aurten, berriz, Pirinioetara itzultzea pentsatu dute. Hango mendateak ez zaizkie arrotzak, duela sei bat urte Tourmaleten izan ziren-eta. Zalantzarik gabe, Tourmalet eta Luz Ardiden Tourreko mendaterik ezagunenetakoak dira txirrindulazaleen artean. Tourmaleteko igoerak 17 kilometro ditu La Mongie aldetik eta 18 Luz Sant-Sauveurretik.

DOMEKERO IRTEERAK

Bestalde, Txirrindulari Elkarteko asteroko irteerakin jarraitzen du. Ekainean eta uztailean, domekero, 08:00etan elkartuko dira San Martin plazan irteerak egiteko. Era berean, datorren zapatuan, ekainaren 22an, Quebrantahuesos proba ospetsua jokatuko da Sabiñanigon eta elkarteko hamabi bat lagun joango dira.

ARTXIBOA



MONIKA BELASTEGI

Bi urteotan urrats nabarmenak eman ditu Asanbladak: 40 bat lagun daude taldean eta ehunetik gora ekitaldi antolatu dituzte.

Urriaren hasieran gaztetxea konpontzeko lanak hasteko konpromisoa hartu du Udalak

Gaztetxeak 2. urteurrena egingo du bihar, zapatua

MONIKA BELASTEGI

Bihar, zapatua, bi urte beteko ditu gaztetxeak, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte urteurrena ospatzeko. Gazte Asanbladako kideek prentsurrekoa egin zuten astelehenean, urteurrenaren berri emateko eta Udalarekin izandako azken hartu-emanak azaltzeko.

Bihar, zapatua, bi urte egingo ditu gaztetxeak, Gazte Asanbladako kideek astelehenean azaldu zuten: "2000. urteko ekainaren 15en, Udalak esan zigun kartzela zaharra ekitaldietarako erabili ahal izango genuela; oso data garrantzitsua da hori, eta hori da ekainaren 15a urteurren data gisa aukeratzeko arrazoia".

2000. urte hartatik hona, ikamika ugari eragin ditu gaztetxe-ko kideen eta Udalaren artean kartzela zaharrak eta bertan egin beharreko obrak. Hala ere, badi-rudi lanak laster hasiko dituztela, prentsurrekoan azaldu zuten: "Joan den astean, batzarra izan genuen Udaleko ordezkariekin eta esan ziguten ekainaren bukaerarako gaztetxe-ko obraren proiektua Udalean egongo dela, eta ekainaren amaieran lanak esleitzeko baldintzak kaleratuko dituztela. Eta irailean edo urriaren hasieran lanekin hasteko konpromisoa hartu du Udalak.

BERROGEI LAGUN INGURU

Bi urteotako balantzea egitera-koan, urte zailak izan direla adierazi zuten Gazte Asanbladakoek,

"batez ere, Udalarekin izan ditugun eztabaidengatik, gaztetxe-ko obrak direla-eta". Bestalde, Gazte Asanbladako kopuruan gora egin du eta oso positibotzat jo zuten hori: "Gazte asko sartu da, berrogei lagun inguruk hartzen dugu parte, eta egubakoitzero batzen gara". Dinamika horren adierazgarri dira bi urteotan antolatu dituzten autogestionatutako ekitaldiak: ehunetik gora kontzertu, zine emanaldi, hitzaldi,

ikastaro antolatu dituzte. Gazte Asanbladako kideen esanetan, "gaztetxeak alternatiba ezberdina izan nahi du, taberne-ekin ez dutena eskaini nahi dugu".

Bi urteotan, hortaz, hainbat aurrerapauso egin ditu Bergarako gaztetxeak. Bigarren urteurrena ospatzeko, askotariko eta guztiendako ekitaldi sorta antolatu dute; guztiak ere, lelo beraren pean: *Bi urtez kartzelia askatasunaren gune bilakatzen!*

Urteurreneko egitaraua

EKAINAK 14, EGUBAKOITZA

19:00: *Vivienda: especulación & okupazioak* liburuaren aurkezpena.

22:30: EH Sukarra taldeak *Galtzailearen egunak* lana aurkeztuko du.

EKAINAK 15, ZAPATUA (2. urteurrena)

12:00: Gazte poteoa gaztetxetik abiatuta.

14:30: Gazte bazkaria. Txartelak Arranon, Pol-Polen eta gaztetxean salgai, 5 eurotan.

22:30: Kontzertua: Obligaciones eta Dirty Jackets taldeak.

EKAINAK 16, DOMEKA

19:00: Film laburren emanaldia: *Txotx, 40 ezetz...*

20:30: Anari kantariaren emanaldia.

EKAINAK 20, EGUENA

19:00: Gazte lokalaren aurkezpen bideoa eta tertulia.

EKAINAK 21, EGUBAKOITZA

22:30: Antzerkia: Interruptus taldearen *Plater Konbinatua*.

EKAINAK 22, ZAPATUA

16:00: Futbolin txapelketa. Izenematea, 5 euro.

19:30: Antzerkia San Martin plazan: Latirili taldearen *Misssh...eria* lana.

22:30: Ki-Sap eta Txakunpa taldeen kontzertua.

EKAINAK 23, DOMEKA

18:00: Mahai-ingurua. Gaia: *Gaztetxeak Deba bailaran*.

Bihar aurkeztuko dute diskoa Gure Ametsa elkarte-ko kideek

MONIKA BELASTEGI

Hamaika doinu eta kantuz osatutako diskoa egin dute San Antonioko Gure Ametsa elkarte-ko kideek. Ramon Etxaniz eta Urretxindorrek taldearen abestiak batzen ditu; bihar, 12:30ean, aurkeztuko dute.

Bihar, zapatua, aurkeztuko dute San Antonio auzoko Gure Ametsa elkarte-ko kideek grabatu berri duten diskoa. Hamaika kantuz osatuta dago diskoa: batetik, Ramon Etxaniz txistulariak Gure Ametsa elkartearendako egin zuen himnoa jasotzen du, Urretxindorrek taldeak abestuta; bestetik, Udal Txistulari Bandaren bost pieza; eta, azkenik, Urretxindorrek taldeak abestutako bost kantu ezagun. Horiatariko lau, gainera, Berga-

rako laukote ezagunak abestutakoak bai, baina aurretik grabatu gabekoak dira. Disko horren grabazioa Aitzol Muxika bergararren ardura izan da.

EHUN BAT KOPIA KALERATU DITUZTE

Gure Ametsa elkarte-koen esanetan, diskoaren ehun bat kopia kaleratu dituzte, elkarte-ko kideen artean banatzeko, sei euroren truke.

Hala eta guztiz, gehiago eskatuko balituzte, kopia gehiago ateratzeko aukera ere badagoela aurreratu dute Gure Ametsa Kultura batzordeko ordezkariak.

Diskoaren aurkezpena bihar, zapatua, izango da, 12:30ean, Gure Ametsa elkartearen egoitzan, San Antonio, eta hantxe izango dira diskoan parte hartu duten kideak. Horren ondoren, bazkaria egingo dute.

GURE AMETSA ELKARTEA



Diskoan Urretxindorrek, Ramon Etxaniz, eta lehengo ermitaren irudia agertzen dira.

LABUR

Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketako finala cd-an grabatuta, tartean bergararrak direla

Gipuzkoako Euskal kantu txapelketaren finala Bergaran izan zen, apirilaren 27an, Novedades aretoan. Antolatzaileek ekitaldi hura grabatu eta cd diskoa egin dute. Diskoa liburuxka batekin lagunduta dator eta bertan kantu guztien hitzak eta egileen informazioa dator.

Finalean herriko hiru ordezkari hartu zuten parte, orain diskoan jasota daudenak: banakako sailean, Argiñe Agirrezabalek; binakakoan, Maitane eta Saioak eta taldekakoan, Bergarakuak taldeak. Hirurek bigarren saria lortu zuten, gainera, txapelketan.

Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta Golden Apple Quartet taldeak lankidetzan dihardute

Pazkoetan elkarrekin emandako kontzertuaren ondoren, Golden Apple Quartet taldeko kideek Bergarako Orkestrarekin lanean jarraitzeko interesa azaldu dute. Alfredo González Chirlique Bergarako Orkestra Sinfonikoaren zuzendariaren esanetan, Pazkoetan elkarrekin eskainitako *Con cierto estilo Golden* lana beste herri batzuetan egiteko proposamena egin diete Golden Apple Quartet taldeko kideek.

Bospasei kontzertu izango dira, eta guztiak ere 2003. urtean barrena eskainiko dituzte. Edozelan ere, oraindik ez dituzte zehaztu datak ezta zein herritan egingo dituzten ere.

E, TXO!

ZINEMA GAZTETXEAN

Datorren martitzenean, ekainaren 18an, *Testigo de cargo* filma eskainiko dute gaztetxean, 22:15ean. Normalean, eguaztenetan izaten dira gaztetxeako zinema emanaldiak; oraingoan, baina, ekainaren 19ko greba deialdiarekin bat egin nahi izan dute gaztetxeoek, eta martitzenean eskainiko dute aste horretako filma.

KUADRILLATEGIKOAK BAKAIKURA

Kuadrillategiko lagunak Bakaikura (Nafarroa) joango dira asteburua pasatzera. Zapatuan, 10:45ean, hartuko dute autobusa geltokian, eta domeka arratsaldean itzuliko dira. Baina ez dira eurak bakarrik joango Bakaikura; izan ere, Gipuzkoako Kuadrillategi egitasmoan parte hartzen duten talde guztiak joango dira. Horrela, beste gazte batzuk ezagutzeko aukera izango dute. Ondo pasatu, bada, asteburua, eta txintxo ibili!

OLINPIADAK BUKATZEAR

Jardunek gaztetxoendako antolatutako olinpiadak oraingo asteburuan bukatuko dira. Bihar, zapatua, San Martin plazan elkartuko dira 16:00etan: errelebuen jokoa egingo dute, eta *altxoraren bila* ere jardun beharko dute. Domekan ere 16:00etan elkartuko dira plazan eta herri jolasak egingo dituzte. Horren ostean, sariak banatuko dituzte.

EKG: PRESIDENTE BERRIA

Ekaineko lehen asteburuan egin zuen batzarra Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, eta, besteak beste, presidente berria hautatu zuten: Alicia Suso da bera, arabarra.

GUREGAIK/ GAZTE PLANA

Gazte Plana onartu berri du Jaurlearitzak

AINTZANE IRIZAR

Maiatz bukaeran onartu zuen Eusko Jaurlearitzak 2002-2005 urteetarako Gazte Plana. Azkeneko hiru urteetan indarrean egon den lehendabiziko planak berak ekarri du, besteak beste, bigarren hori.

Ehun neurri baino gehiago batzen ditu onartu berri duten planak, bost ataletan banatuta: lana, hezkuntza, etxebizitza, osasuna eta aisialdia. Horrela, gazteei etxebizitzak lortzen edo lan esparruan barneratzen lagunduko dizkien neurriak batu dituzte, besteak beste. Jaurlearitzako arduradunen esanetan, gazteen errealitateari osotasunezko ikuspegiare-

kin heltzea da Gazte Plan berri horren helburua.

KRITIKAK IZAN DITU PLANAK

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak erakundeen borondate politikoa eskatu zuen plana garatzeko, "plangintza bera ez delako neurriak gauzatzeko berme nahikoa". Segik ere kritikak egin dizkio planari; gazte politikak ez duela pisurik administrazioan, erantsitako gehigarria izan ohi dela salatu zuten.

Azkenik, Urtxintxa Eskolako Bego Gonzálezek adierazi zuen plangintzak orain arte arazoak izan dituela udalerrietan abian jartzean; "gakoa da akaso neurriak ez direla gazteek behar zituztenak", adierazi zuen.



Gazteei lan munduan barneratzen laguntzeko hainbat neurri jasotzen ditu planak.

LOTSABARIK/ Amaia Rodríguez

"Lagunei barre eragitea gustatzen zait"

AINTZANE IRIZAR

Oso burugogorra ei da Amaia (berak esandakoa da), baina txikitatik asko aldatu ditu planak: Eroskiko kutzazain izan nahi zuen garai hartan; orain, berriz, Medikuntzako ikasketak egin nahi ditu.

• Txikitari, zer izan nahi zenuen?

Eroskiko kutzazain; izan ere, dendara joaten nintzenean, jendeak diru mordoan ematen ziela ikusten nuen, eta diru guztia euren dako zela uste nuen.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?

Medikuntzako ikasketak egin

nahi ditut; hortaz, espero dut mediku lanetan jardutea, eta mutilen batekin bizi izaten.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berrero?

Ikasteko eta zintzoa izateko. • Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Ez daukat bat bera ere; beti harrapatzen naute. Nire gurasoekin ez dago balio duen taktikarik; noizean behin gezur txikiren bat esaten diet, baina berehala harrapatzen naute.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunei eta osasunari.

• Zure bertute bat?

Dibertigarria naiz; jendeari barre eragitea gustatzen zait, eta

uste dut lortzen dudala.

• Eta hutsune bat?

Burugogorra naizela; buruan zerbait sartzen baldin bazait...

• Zerk amorratzen zaitu?

Gezurak.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Belarriak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Aurpegiari; batez ere, begiei.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Mutilari begietara begiratu, eta hark begiratzen baldin badit, begiratzen segi edo irribarre egin...


• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Hori oso pertsonala da.



ADINA: 15 urte • IKASKETAK: DBHko 3. maila • ZALETASUNAK: Igeriketa • LIBURU BAT: Ez zait batere gustatzen irakurtzea
FILM BAT: 'El sexto sentido' • MUSIKA TALDEA: Berri Txarrak • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA/ Gorka Ortega eta Jon Alvarez



ZAHARREN ETXETIK



Zuzendaritza osatzen duten hamar lagunetatik sei izan ziren astelehenean San Joxepen egindako batzarrean.

San Joxepeko Zuzendaritzaren erdia berri zuten Batzar Orokorrean

EDU MENDIBIL

Joan den maiatzaren 30ean egindako Batzar Orokorrean, Zuzendaritza batzordearen erdia berritzea onartu zuten San Joxepeko kideek. Horrela, bost aldaketa egin dituzte Zuzendaritza batzordean.

San Joxepeko estatutuetan jasotzen denez, urtero, Zuzendaritzaren erdia berri beharra dago. Gauzak horrela, eta bi urteko lanaren ondorioz, Jose Arenazak, Iñaki Egurenak, Felix Garaik, Elisa Garmendiak eta Joxepi Larrañagak Zuzendaritza batzordea utzi berri dute eta Batzar Orokorrean erabaki zuten, honako hauek izango dira euren ordezkariak: Natividad Albisua, Juan Kruz Azkarate, Maria Luisa Basterra, Dora Manso eta Jose Miguel Ortigosa. Bost horiek bi urtez jardungo dute Zuzendaritzan, joan den urtea ezkerreko batzordean daudenekin batera. Tomasa Zabaleta presidente kargua uztekoan zen, baina beste

urtebetez jarraituko du, San Joxepeko bazkideek halaxe eskatuta.

Goiko argazkian Zuzendaritza batzordeko sei lagun ikus ditzakezue, ezkerretik eskumara: Juan Kruz Azkarate, Nieves Gallastegi, Tomasa Zabaleta, Natividad Albisua, Juan Iturralde eta Jesus Ruiz de Azua. Hain zuzen ere,


Erretiratuen egoitzaren historia

1972. urtetik hona erretiratuen egoitzak izan duen ibilbidea jasotzea da helburuetako bat. 1972an, Alkartu Naik Seminarioan zegoen Aitonak elkarteak sortu zuen, eta orduetik hona, aldaketa dezente izan dira. Liburua argitaratzeko proiektua martxan da eta bereziki Aitonan lehen etapa bizi izan zutenengana jo nahi dute San Joxepekoek.

Maria Luisa Basterra, Dora Manso, Jose Miguel Ortigosa eta Mariasun Plazaola falta dira goiko erretratuan.

HOBEKUNTZARAKO HELBURUAK

Zuzendaritza berriaren helburuen artean, belaunaldien arteko harremanak bultzatzea, herriko elkarteekin eta taldeekin kolaboratzea edo borondatezko lanaren garrantzia azpimarratu zituen Tomasa Zabaleta presidentek. Jakingo duzue, Arrasateko LKS Aholkularitzarekin batera elkarrearen funtzionamendua hobetzeko plangintza lantzen dihardute San Joxepekoek. Zabaletaren hitzetan, "plangintza horren bitartez erretiratuen beharretara egokitzeko urratsak eman nahi ditugu eta, era berean, herriko elkarteekin batera jarduerak egitea ezinbestekotzat jotzen dugu, gure nahia gizar-tean presente egotea delako, herri-tarrendandik ahalik eta gertuen egotea, hain justu. Hainbat belaunaldiren arteko harremanak bultzatu nahi ditugu, guztiz aberasgarria izango delakoan".



Xabierko Gaztelura eta Leirera irteera

Leire, Sos del Rey Católico eta Xabierko Gaztelua ikustera joateko irteera izango da ekainaren 27an (eguna), San Joxepe antolatuta. Bazkaria Zangozan egingo dute, eta ibilbide osoan zehar bisitaldi gidatuak izango dira. Aragoiren eta Nafarroaren arteko mugan Xabierko Gaztelua (argazkian) garrantzi handia izan zuen Errekonkista Garaian eta Erdi Aroan. Leireko San Salvador monasterioa Nafarroako erromanikoren hasierako eraikin nagusia da. Izenematea ekainaren 17ra arte zabalik. Argibideak, 943 76 30 09 telefonoan.

ZAHARREN TXOKOTIK

Alaitz Arana

EGUNEKO ZENTROKO LANGILEA

Gutxitu psikikoen hezitzailea da Alaitz (25 urte) eta San Joxepen Eguneko Zentroa ireki zutenetik bertan dihardu lanean, 1997ko udazkena ezkerre, hain zuzen.

Zer-nolako gaixoak dira Eguneko Zentrokoak?

Askok uste dute alzheimerren dutenak bakarrik etortzen direla, baina ez da horrela. Dependentsia fisiko zein psikikoa dutenei zuzenduta dago Eguneko Zentroa. Une honetan, bederatzi lagun dauzkagu (10.a jasotzeko zain gaude), eta aste barruan etortzen dira, 10:00etatik 18:00etara.

Nola igarotzen duzue eguna?

Goizean, hainbat jarduerak egiten ditugu; eguerdian, San Joxepen bazkaltzen dugu guztiok; eta siesta egin ondoren, telebista ikusi, karta-jokoak



eta horrelakoak egiten ditugu. **Gustuko lana duzu?**

Bai, txikitatik erizain izan nahi nuen, eta gustura nabil. Zaharrek asko ematen dizute. **Zelako zahartzarora eduki nahi zenuke?**

Erretiro on batekin alde batetik bestera ibili nahi nuke, bidaiak egin.



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA



GABILONDO
INMOBILIARIA
Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zeintzuk dira argazkiko hiru baserrien izenak?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Astigar arrunta

Acer campestre

MAITANE ARIZABALETA

Hogei metrora heltzen ez den zuhaitz hostotsua. Azala lodia, zartatua eta ezkatatsua da. Adar gazteak gorrixkak dira eta zauritzean, latex zuria darie. Hostoak erorkorrek, palmatuak eta 3-5 gingiletan banatuak. Udaberrian, apirila eta maiatza bitartean, infloreszentziak garatzen dituzte eta horietatik, udazkenean, mintz antzeko hegala bi dituzten fruitu bereizgarri batzuk (samarak) sortzen dira; binaka lerrokotuta.

Astigar arrunta basoan, hosto erorkorren artean, bizi ohi da, hots, harizti edo pagadietan, eta talde txikietan azaltzen da. Herrietan itzal zuhaitz gisa landatzen dute, bai eta heskaiak egiteko ere. Ibargarai eta Sánchez Toca kaleetan ikus genezake ilara zuhaitz gisa landatuta.

Lorezaintzan barietate ugari lortu dira, batik bat, udazkenean kolore ikusgarriak hartzen dituztenak. Esaterako, *acer palmatum*.

Egurra gogorra, trinkoa eta zaila du, kolore horixka edo gorrixkakoa, zurgintzan oso estimatua, altzariak edo erreminta kirtinak egiteko. Sutarako erregai ona da baita.

“Herrietan itzal zuhaitz gisa landatzen dute, bai eta heskaiak egiteko ere”

GALDEDEBALDE

- | | | |
|--|--|--|
| <p>1.
Zein urtetan inauguratu zituten Agorrosingo barruko igerilekuak?</p> <p>A/ 1974an.
B/ 1973an.
C/ 1971n.</p> | <p>2.
Nork konposatutakoa da San Antonioko Gure Ametsa elkartearen himnoa?</p> <p>A/ Aitzol Muxikak.
B/ Ramon Etxanizek.
C/ Boni Laskurainek.</p> | <p>3.
Zeinen aurka galdu zuen Ander Muguruzak Elgetako lau t'erdiko pilota txapelketan?</p> <p>A/ Báez.
B/ Agesta.
C/ Argote.</p> |
|--|--|--|



Super BMn emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MARIA TERESA AZKARATErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maria Teresa! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Ezkerrekoa Haritzetako San Miguel. Eskumakoa, San Antonio. / Galde debalde: 1-B, 2-A, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Koipesol ekilore olioia

Litro bateko botila

1,19 €

198 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ARTXIBOA



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

AGENTEA

Ramon Maria Lili, 6-behea

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54


Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:

9.00-14.00 eta 15.30-19.30



IRAEGI
ASEGURUAK



Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01



BERGARA
Mikeldi Bengoa
Ekainaren 20an 31 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Malin.



BERGARA
Maddi Aldazabal
Ekainaren 14an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Markel Labaka
Ekainaren 18an 4 urte.
Urte askotarako!
Eukene.



BERGARA
Alex Alferez
17an 5 urte. Zorionak!
Gurasoak, aitona-amonak
eta osaba-izebak.



BERGARA
Olaia Sanchez
Ekainaren 17an 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Julen.



BERGARA
Agustin Toledo
Ekainaren 14an
Urtebetetzea. Zorionak!
Aspaceko lagunak.



BERGARA
Jon Gantxegi
Ekainaren 20an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Mikel Alberdi
Ekainaren 18an 2 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
Maitane, Maddi eta Olatz.



BERGARA
Unai Arietaleanizbeazkoa
Ekainaren 16an 3 urte.
Zorionak! Etxekoak.



BERGARA
Maria Berroia
Ekainaren 15ean 3 urte.
Urte askotarako!
Borja eta familiakoak.



BERGARA
Alatz Lazpita
Ekainaren 17an 6 urte.
Zorionak! Lehengusuak,
Josu, Mariñe eta Ibon.



BERGARA
Ane Blanco
Ekainaren 17an 9 urte.
Urte askotarako!
Aittitta eta amama.



BERGARA
Jon Arregi
Ekainaren 13an 8 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
Barrenkalekoak.



ANTZUOLA
Jone Rodriguez
Ekainaren 14an 12 urte.
Zorionak! Familiakoak
eta beste norbait.



BERGARA
Andoni Fernandez de Lezea
Ekainaren 11n 10 urte.
Zorionak! Gurasoak.


Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33 **Elgeta:** Erosle-Baltxungo
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara



MAIATZAREN 31KO APATXIKO ERANTZUN ZUZENAK:

ATSOTITZ EZKUTUA:

Pelota txiki-bixikak dira, gehixenak kristalezkoak eta kolore askotatuak.	K A N I K A K 10 2 8 11 10 2 10
Txuntxurrunka egitteko bihar izaten dogu.	H A R R I X A 1 2 4 4 11 13 2
Escolan jolasian egitteko daukagun tartia.	A T S E D E N A L D I X A 2 6 3 5 9 5 8 2 12 9 11 13 2
Pelotan, futbolian eta hainbat kirolean atzeko aldian jokutzen dabena.	A T Z E L A R I X A 2 6 7 5 12 2 4 11 13 2
Kirolean edade-kategorietako bat.	K A D E T I A 10 2 9 5 6 11 2

ATSOTITZA:

H A S A R R E T Z E N 1 2 3 2 4 4 5 6 7 5 8	D A N A K 9 2 8 2 10
A D I S K I D E T Z E N 2 9 11 3 10 11 9 5 6 7 5 8	L A N A K 12 2 8 2 10

Zorionak Jon eta Itziar!

Haiei egokitu zaizkie 'Apatxi'-ko 3. aleko lehen sariak!

Apatxiko hirugarren aleko sariketan
Jon Zangituk eta Itziar Camposek
irabazi dituzte bi sari nagusiak.
Jonek Matrakan mahai jokoa eta **Itziarrek Silabak eta Hitzak** jokoa eskuratu dituzte.

Horrez gain, **Hirune Astigarraga, Aitor Franco, Daniel Alcaraz, Ana Sesma eta Jon Patxi Aiastui** ikasleek
Ume txikiendako kantu eta jolasak
liburuxka bana jasoko dute euren ikastetxeetan.

ZEIÑEK DIÑO?:

1 C 2 E 3 A 4 D 5 F 6 B

APATXI-REN HURRENGO ALEA, HURRENGO IKASTURTEAN BERRIGARAREKIN BATERA!
Beraz, adi egon! Bitartean, ondo pasa oporrak!

ALBAITARIAK

ARTZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, sakelakoa: 607 48 71 19

BALDANA Koldo Elizalde 28. 943 76 27 97, sakelakoa: 630 764 545

ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13

IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1, behea. 943 76 02 46

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

LASKURAIN HORTZ KLINIKA Boni Laskurain 4, behea. 943 76 56 57

TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

ERREHABILITAZIO FISIKOA

LOPEZ DE MUNAIN Francisco J. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETxea, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

GANUZA Susana Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

AZPEITIA Irupe Fraiskozuri, 4. 943 76 73 43

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

OXIRONDO KONTSULTATEGIA Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50

PODLOGOAK

ALTUBE Edurne Simon Arrieta 2. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

JOKABIDEAREN PSIKOLOGIako KABINETEA (Azterketa psikologikoa). 943 76 59 39

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

SAMADHI YOGA Kruz Gallastegi 2, behea. 943 76 11 38, sakelakoa: 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko ekainaren 14a / 117. zenbakia


KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Tonbola jarriko dute jaietan Anelkarrekoek

AINZANE IRIZAR

Herriko jaietan tonbola jartzeko lanean dihardute Anelkarrekoek. Jaietako egubakoitzean eta zapatuan egongo da tonbola plazan. Horrela, jendeari zuzenean dirua eskatu beharrean, zerbait ezberdina eta parte hartzailea antolatu nahi dute.

Aurten, 10 urte bete dira Anelkar sortu zela. Hori dela eta, zerbait ezberdina eta, era berean, parte hartzailea izango dena antolatu nahi zuten. Horrelaxe sortu zitzaizen tonbola jartzearen ideia. Herriko denda, enpresa, artisau eta gainerako herritarrei euren laguntasuna eskatu diete tonbolarako sariak batzeko. Baita Bergarako dendariei ere. Enpresei, berriz, dirulaguntza eskatu diete; laguntza eman nahi dutenek honako kontu korronte zenbakietan eman dezakete: Kutxako 00 1087950.0 zenbakian, eta Euskadiko Kutxako 1213.3 zenbakian. Gainerako herritarrek, berriz, Kontxi Laskurain (943 76 60 62) edo Jabier Etxanizengana (943 78 70 56) jo dezakezue zuen laguntza eman nahi baduzue.



Batutako dirua Canudosen ur putzuak egiteko erabiliko dute, besteak beste.

BATUTAKO DIRUA, CANUDOSERA

Anelkar Brasilgo Canudos herriari laguntzeko sortu zen. Oraingoan ere hango hainbat proiektu bultzatzeko izango da

batutako dirua: hango familien-dako ur putzuak egiteko eta Canudos eskualdeko nekazariendako hainbat lokal errentan hartzeko, besteak beste.

HIRIGINTZA

Hainbat lan egingo dituzte Antiguán

Antigua auzoko 1, 3 eta 5 zenbakien aurreko aldean eta autobus geltokiaren atzeko aldean berrikuntzak egingo ditu Udalak.

Alde batetik, hiru atari horien aurreko aldeko plazaratxoan kolektore sarea guztiz berrituko dute; izan ere, hainbat arazo sortarazi dizkie kolektoreak. Bestetik, plazaratxo oinezkoendako gunean hormigoi inprimatuzko lurzorua jarriko dute. Hormigoi inprimatuak harria edo bestelako materiala imitatzeko aukera ematen

du. Antzuolan era horretako materiala erabiltzen duten lehen aldia izango da oraingo hau.

Bestalde, oinezkoen lehentasuna eman nahian, Irimora hartzen den tokian dagoen oinezkoendako pasabideari altuera emango diote; baita espaloi berriak egin ere. Autobus geltokiaren atzeko aldean ere hormigoi inprimatuzko lurzorua jarriko dute. Azkenik, garajeetarako pasabideak eta aparkalekua asfaltatu egingo dituzte.



Lehen aldiz erabiliko du Udalak hormigoi inprimatua.

HERRI IKASTETXEA

Ikastetxeko jangela egiten hasiko dira

Uztailan hasiko dira Herri Ikastetxean jantokia egiteko lanekin; horrela, udako oporraldia aprobetxatuko dute, eta irailerako, datorren ikasturte hasierarako, jantokia prest egotea espero dute eskolako eta Pausokako ardurdunek. Hogei bat umek eman dute izena datorren ikasturtean ikastetxean bazkaltzeko.

Gaur egun liburutegia dagoen tokian egokituko dute jangela; liburutegia, berriz, tokiz aldatuko dute, ikastetxeko beste gela baten jarriko dute.

HIRU LANGILE BEHAR DITUZTE

Pausoka Gurasoen Elkarteko ardurdunek azaldu digutenez, eskolako jantokian hiru langile beharko dituzte: bazkalorduan ikasleek arduratzeko bi begirale eta bazkariak arduratzeko den beste bat, hain zuzen ere. Lanpostu horietara aurkezteko eskaera orriak eskolako idazkaritzan daude eskuragarri. Interesa dutenek ekainaren 12tik 20ra dute lanpostu horietara aurkezteko epea, eskaera orria eskolara eramanez.

ERAKUSKETA

Pintura ikastaroko ikasleen lanak ikusgai

Aurtengo ikasturtean Pintura ikastaroan aritu diren ikasleen margolanak ikusgai izango ditugu asteburuan Olanan etxeko aretoan. Ohiko ordutegian egongo da zabalik erakusketa hori: zapatuan eta domekan, 12:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean, 19:00etatik 20:30era, hain zuzen ere.

Urrian hasi zuten ikastaro hori, eta oraintxe amaitu dute. Antxon Arrilaga pintore bergararra izan dute irakasle. Marrazkia eta pintura landu dituzte,

batik bat. Irailean herritar askok eman zuen arren izena ikastaro horretan parte hartzeko, zortzi lagunek bakarrik bukatu dute, eta euren margolanak izango dira asteburuan ikusgai jarriko dituztenak. Ikasle bakoitzak hiruzpau lan jarriko ditu Olanaren; hainbat motibo eta estilotako margolanak guztiak ere.

Duela hiru urte hasi zen Udaleko Kultura batzordea Pintura ikastaroak antolatzen, eta aurrerantzean ere izango ditugu era horretako ikastaroak herrian.

LABUR

Egaralur, Antzuola Udal Etxegintzako bazkide berria

Joan den astean egin zuten osoko bilkura, eta hantxe erabaki zuten Egaralur enpresa hautatzea Antzuola Udal Etxegintzako bazkide moduan. Gauzak horrela, laster hasiko dira Sagasti auzoan etxebizitzaren multzoa eraikitzen. Hama sei etxebizitza eraikiko dituzte guztira. Lehen egin zituzten bi etxebizitza multzoen berdina izango da hirugarren hau. Udaleko ardurdunek adierazi digutenez, oraindik ez dago etxebizitza horietarako izena emateko aukerarik.

ELKARRIZKETA

UXUE ARREGI/GIMNASTA

“Euskadiko Txapelketan zorte txarra izan nuen; min hartuta joan nintzen”

A.I.

Maiatzean, Gipuzkoako Eskola Arteko Txapelketa irabazi zuen. Orain, Euskadiko Txapelketan hirugarren izan da. Maialen Toledo bigarren izan zen eta Iraitz Gastiain, berriz, zazpigarren sailkatu zen.

Denboraldi bikaina egiten ari zarete Antzuolako gimnastok, ezta?

Bai, baina baita Bergarakoak ere. Ni Bergaran entrenatzen naiz, Ariznoa taldearekin, eta denok egin dugu nahiko denboraldi ona. Euskadiko Txapelketan, alde batetik, zorte txarra izan dut, lesionatuta joan nintzen-eta: izterrean min hartuta nago. Bestetik, baina, zorte ona ere izan dut, lesionatuta egon arren hirugarren geratu nintzelako.

Zela hasi zinen gimnasia erritmikoan?

Eskolan proposatu ziguten gimnasia hastea; niri txiki-txikitatik gustatu izan zait gimnasia erritmikoa, eta animatu egin nintzen.

Antzuolan zenbat lagun ari zarete gimnasia?

Antzuolako lau neska entrenatzen gara Bergaran, Ariznoa taldearekin. Baina badaude Antzuolan bertan entrenatzen direnak ere.

Mutilak ez al dira, bada, animatzen?

Ez, Antzuolan, behintzat, ez; izan ere, beti pentsatu izan da nesken kirola dela. Nik mutil bakarra ezagutzen dut gimnasia dabilena, eta oso ona da, gainera.

Kirol gogorra omen da.


Bai, gogorra da, ordu asko sartu behar dira; baina, ez dugu beste batzuk adina ordu sartzen.

Zenbat entrenatzen zara?

Astean lau egunez, egunean bi orduz.

Ze ezaugarri behar dira gimnasta on bat izateko?

Batez ere, elastikotasuna da garrantzitsua; ez dago argal egon



AINZANE IRIZAR

“Astean lau egunez, egunean bi orduz entrenatzen naiz; beste batzuk baino askoz gutxiago”

beharririk. Ezagutzen ditut gizen samar egon arren, oso gimnasta onak direnak.

Entrenamenduez gain, zainketa bereziren bat ere beharko duzue, ezta?

Ez; ez daukagu dietarik eta horrelakorik. Profesionalak, bai,

“Gimnasta ona izateko, batik bat, elastikotasuna oso ezaugarri garrantzitsua da”

asko zaindu behar izaten dira. **Ze asmo daukazu aurrera begira?**

Entrenatzen jarraitzen dugu, baina denboraldia amaitu dugu. Datorren urtean jubenila izango naiz, eta ia zela moldatzen naizen maila berrian.



Debagoieneko erretiratuen kirol jaia

Ibarreko ia 500 erretiratu elkartu ziren joan den egubakoitzean Antzuolan, Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako kirol jaian parte hartzera. Esku pilotan, aerobikean, uztai jokoan, kartetan... era guztietako jokoetan aritzeko aukera izan zuten pilotalekuan, Olanan etxean eta ikastetxean. Eta arratsalde osoan atertu ez zuen arren, asko animatu ziren Uzarraga auzotik ibilaldira egitera. Horren guztiaren ondoren, mokadutxo bat hartu eta dantzarako aukera ere izan zuten. /A.I.

LABUR

Herriko triatletek lan bikaina egin zuten Debagoieneko II. Triatloi lasterketan


Hiru antzuolarrek parte hartu zuten joan den zapatuan Urkulun eta Arrasaten jokaturako triatloi proban. Aitor Larrea hamaikagarren postuan sailkatu zen, 2:07:14ko denborarekin; Julen Gari-tano hamahirugarren, 10 segundora, eta Carlos Baleztena 31. postuan, bi ordu, hamahiru minutu eta 33 segundoko denborarekin.

Musker Oker musika taldearen kontzertua izango dugu bihar, zapatua, Surpe tabernan

Bihar, zapatua, 23:00etan, eskainiko dute kontzertua Surpen. Iaz, urrian, sortu zuten taldea, eta lau kidek osatzen dute: Donostia-ko, Lasarteko, Alzakoko eta Asteasuko kide banak, hain zuzen ere. Egiten duten musika definitzea zaila dela esan digute: reggaea, popa, rocka, funky-a... era guztietako estiloak nahasten dituzte.

Antzuolako Kirol Elkartekoek denboraldi amaiera ospatuko dute bihar, zapatua

Futbol denboraldia amaitu dela eta, jaieguna izango dute bihar-koa, zapatua, herriko taldeetako jokalarik, entrenatzaile eta zuzendaritzako kideek. Txikiteoaren ostean, afaria egingo dute, eta talde bakoitzeko bi jokalarik onenak sarrituko dituzte afalostean.



Zabalo Iturgintza S.L.
Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haie egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-urrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1. ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko ekainaren 14a / 102. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Aurrekontuak onartu dituzte

OXEL EROSTARBE

Eguenean izan zen osoko bilkuran 2002ko aurrekontuak onartu zituzten, EAJ-EAren eta Batasunaren aldeko botoekin. Batasunak aurrekontuen alde bozkatu arren, EAJ-EAk bakarrik jarraituko du Gobernu Batzordean. 1.129.902 euroko aurrekontua onartu dute.

EAJ-EAren eta Batasunaren aldeko botoekin, 1.129.90 euroko (188 milioi pezeta) aurrekontuak onartu ditu Elgetako Udalak.

Udabiltzaren ekintzaren bat aurrera eramanez gero dirulaguntza emateko borondatea egongo zela, Espaloia bultzatu behar dela eta datorren urtean UEMAn sartzea aztertuko dela aktan idatziko zela EAJ-EAk onartu eta gero, Batasunak baietz bozkatu zien EAJ-EAk aurkeztutako aurrekontuei.

Iaz, kontra bozkatu zuen Batasunak eta gobernutik kanpo geratu zen. Aurtengoan, EAJ-EAko Gobernu Batzordeak aurkeztutako aurrekontuen alde bozkatu duen arren, horrek ez du aldatarik eragingo udal gobernuan eta Batasunak Gobernu Batzorde

detik kanpo jarraituko du legegaldia amaitu arte.

Iaz, 167 milioi pezetako aurrekontuak izan zituen Udalak. Aurtengo aurrekontuak iazkoen nahiko antzerakoak diren arren, bertan kontuan hartzen diren inbertsioek igoera eragin dute.

INBERTSIOETAN IGOERA NABARMENA

Guztira, 251.000 euroko aurrekontua egongo da inbertsioetarako, 42 milioi pezeta inguru. Iaz, 166.500 euroko aurrekontua izan zen; igoera, hortaz, nabarmena da aurten.

Inbertsio nagusiak hainbat sektoreen planeamenduak egiteko izango dira. IV. sektorearena 54.000 euro eta VIII. sektorearena 30.000 euro. Arau subsidiarioetan egingo diren aldaketek 31.252 euroko aurrekontua izango dute. Kiroldegirako 27.000 euro, Uriarte auzora ura eramateko 27.700 euro, San Roke kalearen amaieran plaza txiki bat egiteko 18.030 euro eta Espaloia aretorako 18.030 euro dira aurrekontuetan kontuan hartzen diren gainerako inbertsio handienak.

Mapa Toponimikoa egiteak izango duen kostua ere kontuan hartu dute aurrekontuetan.


JON ABRILEN EPAIKETA

Errua onartu, espetxe arriskua eragozteko

Duela urte bi Auzitegi Nazionalako atarian Ttipi-Ttapa telebistarako irudi batzuk grabatu zituelako, sei urteko kartzela-zigorra, kazetari izateko eta hautetsi izateko sei urteko ezgaitzea eta 7.200 euroko isuna eskatzen zituen Jesus Alonso fiskalak Jon Abril kazetari beratarrendako.

Martitzenean, ordea, ahozko epaiketarako sartzeko ordua heltzear zela, fiskalak bere zigor eskaera aldatu eta akordioa eskaini zion Jon Abrilen defentsari.

Bere errugabetasuna defendatzearen edo fiskalaren eskaintza onartu eta espetxera ez joatearen artean erabaki behar izan zuen Jonak. Auziaren instrukzioa eta Zigor Arloko Laugarren Salak gaiaren inguruan izan duen jarraera ikusita, fiskalak egindako eskaintza onartu zuen Jonak. Bere burua errugabetzat izanik ez zen batere erraza izan errua onartzea. Espetxera joateko arriskua hor zegoela kontuan hartuta, erabaki onena. Zorionak, Jon!



Bai Jon bai eta Jonen herritar eta lagunak ere pozik bueltatu ziren Madrildik.

LABUR

Erretiratuaren bazkarirako txartelak salgai

Dagoeneko salgai daude jailetako barikuan izaten den erretiratuendako bazkarirako txartelak. Mari Asunen dendan edo Udaletxean eskatu behar dira.

Aurten ere Ozkarbi Elkartean izango da bazkaria, eta hara joan nahi dutenek 4 euro ordaindu beharko dituzte.

Egueneko herri afarirako txartelak ere salgai daude Haizean eta Patxin. Txartelak hartzeko azken eguna hilaren 20a izango da. Umeek 7,20 euro ordaindu beharko dituzte, ikasle eta langabeek 8,50 euro eta nagusiek, 10,50 euro.

Patxi Basauri 'Alkatearekin berbetan' saioan

Ekainaren 26an (eguztzena), Elgetako alkate Patxi Basauri izango da GOITBko Alkatearekin berbetan saioan.

Saio horretan Elgetarako dauden proiektuez, herriaren etorkizunaz, eta abarrez jardungo dute.

Saioa zuzenean izango da 20:30etik aurrera. Era berean, saiora bertara deitu eta alkateari zuzenean galderak egiteko aukera egongo da. Horretarako, 943 71 23 93 telefonora deitu beharko da.

Udako kanpainaren izena emateko epea zabalik

Uztailaren 1ean hasi eta 24ra bitartean izango da Udako kanpaina. Eskaintza zabaldua izango da: hiru eta sei urte artekoendako aisialdia eta multikirola izango dira; zazpi eta 12 urte artekoendako, aerobika, patinajea, pilota eta erraketa kirolak; 13 eta 16 urte artekoek, horiez gain, defentsa pertsonalean ere eman dezakete izena eta 16 urtetik gorakoek, piraguismoan eta eskaladan. Izena emateko mugaeguna, hilaren 25a.

HERRITARREN HITZA / Olaia Jiménez • Ikaslia

Zergatik aldaketia?

GOIBEKOKALEk ehun zenbaki egin zittuanian hitzaldixak, afari goxua eta dantza eta musika faltaik ez zan egon. Goizian ondo ilustratu eta gero praktikara eruateko ordua iristen da!

Danok dantzan jardun giñuan, edade guztietakuak. Esan geinke erromerixa giroko musikia gustokua dala, nahiz eta gero jaixetan gaztiak taberna zuluuan sartuta egon.

Jaixak ataixan eta plazan gustoko erromerixak. Panorama, umiak eta helduak bertan dantzan. Badaka zer esana honek. Herriko jaixak itxoiten egoten gaz eta ordua heltzen

danian gazte danok taberna zuluuan sartuta egoten gaz.

Badakigu, plazan egoten dan musikiaz gain, beste musika eskaintza batzuk daozela Gaztetxian, gustuan arabera aukeratu leike, bai hoixe! Batzui ez jakue dantzan egittia gustatzen eta bestiei, ez bata ez bestia. Lehen tabernetan erromerixa giroko musikia entzuteko aukeria izaten giñuan. Danok egin dogu taberna barruan



“Jaixak heldu eta gazte danok taberna zuluuan sartuta”

dantzan agarraren bat edo beste.

Baina galderia da, urte guztian eskura dagon taberna hortan egotia eta behin da berriz entzundako musikia entzutiak, zer ekarpen egiten dotsan jaixak ospatzen dagon horri? Bizirik gaozela, libriak gazela edo hori ohiturioi dakauela

eta ezin aldatu edo aldatzia nahi ez... Edo lotsia, plazara fan eta geure artian dantzan egittia

eta bestiek gu dantzan ikustia? Arrazoi asko.

Demaseko joeria hartu dogu tabernan sartuta ondo pasatzeke. Ez dakit arrazoia aldaketa kulturala dan, kokakolian kulturaren sartu eta aurrera egiten douen edo zer.

Bi gauza parian ipintzia nahi nittuzke amaitzeko: oin urte batzuk erromerixa giroko eta alkarrekin egiteko dantzak tabernan egiten giñuala, gaur egunian ez plazan eta ez tabernan.

Eta, taberna barruan dantzan egittia errezaua egiten jaku eta plazan zaillaua? Operación koka kola?

IRAKURLIAREN TXOKUA

ELGETATIK ZUBEROA BULTZATZEN

Zuberoa garatzen kanpaina abiatu zenean, bi helburu nagusi genituen, Zuberoako egoeraz jabetzea herritarren kontzientziak pixka bat astinduz eta bigarrenik egoera honi buelta ematen hasteko diru bilketa bat egitea.

Gaur egun denok dakigu pixka bat gehiago Zuberoaren berri, eta bere egoera ekonomiko larriaz jabetu gara.

Diru bilketa aldetik Elgetan genituen helburuak gainditu ditugu, talde eta pertsona askoren laguntzari esker. Gaztetxeak bere apurra ipini du, kontzertu eta beste ekintza batzuk antolatuz. Guraso elkarte-koek ere lagundu dute lan majoa eginez zozketako txartelak saltzen etab. Ezin ahaztu Umeentzako egindako magia emanaldia, pilota elkartearen, liburutegiko arduradunaren, Batasunaren eta beste partikular batzuen laguntza eta esku zabaltasuna.

Denoi eskerrak auzolanean hau posible egiten lagundu duzuelako. Orain eragindako hasitik erneko da etorkizuna. Hau ez da hasiera besterik, etorriko dira helburu berriak eta horrela elkarlanean Euskal Herrian udaberria loratzen joango da etorkizuna gure esku izango dugularik.

ELGETA-ZUBEROA
PLATAFORMA

IRAKURLIAREN TXOKUA

GOIBEKOKALEn zure gutuna argitaratzia nahi izanez gero, GOIBEKOKALEko buzoian laga edo goibekokale@goiena.com helbidera bialdu. Betibe, martitzen goiza baiño lehenago bialtzia komeni da.

ASTEKO GAIA

Eudelen mozioa onartu du Elgetako Udalak, EAJ-EAko lau zinegotzien aldeko botoekin

O.E.

Aurreko egunean izan zen osoko bilkuran euskal gizarte-arekin harremana duten hiru puntu aztertu zituzten Udaleko ordezkariak. Batasunak mozio bi aurkeztu zituen eta EAJ-EAK, Eudelen mozioa. Eta Eudelen mozioa bakarrik irten zen aurrera, EAJ-EAren botoekin.

Elgetako zinegotziek Euskal Herrian bizi dugun gatazkaren gainean jardun zuten aurreko eguneko osoko bilkuran. Gai hori aztertzeko mozio bi zeuden mahai gainean: bata, *Euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko printzipioak* izenburupean, Batasunak aurkeztu zuen eta bestea, *Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoa* izenburupean, EAJ-EAK aurkeztu zuen.

Nor bere aldetik aztertu beharrean, mozio biak batera eztabaidatu zituzten osoko bilkuran.

Funtsean antzekoak ziren arren, EAJ-EAK aurkeztutakoak esplitzitu ETARI borroka armatua uzteko eskatzen zion. Batasunaren mozioak, aldiz, indarkeria guztiak gaitzetsi behar zirela zioen. Eztabaidaren ondoren, zinegotziek ez zuten akordiorik egin eta nork bere mozioaren alde bozkatu zuen. Horren ondorioz, EAJ-EAK aurkeztutakoak egin zuen aurrera. Hain zuzen, mozio hori babesten du Eudelek.

Nabarmentzekoa da mozio bietan gatazkaz berba egiteko foro bat bultzatzea aipatzen zela. Interesgarria izango litzateke foro hori aurrera eramateko ahalegi-na egitea.

BATASUNA LEGEZ AURKA JARTZEA

Batasunaren ilegalizazioaren aurkako mozioa ere eztabaidatu zuten. Batasunak aurkeztutakoari, EAJ-EAK mozio alternatiboa aurkeztu zion, eta horrek lortu zuen zinegotzi guztien sostengua. Horrela, Batasuna ilegalizatzeko asmoa salatu du Elgetako Udalak.



Beste udal batzuetan ez bezala, Elgetako zinegotzien artean ez zen istilurik izan.

KIROLAK

Emakumeen Birako etapa Elgetan

O.E.

Bihar, zapatua, arratsalde osoan itxita egongo da Elgeta eta Eorrio arteko errepidea. Izan ere, Emakumeen Birako 2. etapako erlojukontrako sektorea jokatu da bide horretan. Aurtengoan ere punta-puntako txirindularririk hartuko dute parte Emakumeen Biran. Besteak beste, duela bi urteko irabazle Joane Somarriba izango da lasterketan.

GOIZEAN, FO FO FOREN PARTIDUA

Bihar, zapatua, 10:15ean, Ipintzako Txapelketan jokatu du Fo Fo Fo taldeak Matxakategiren aurka. Bigarren faserako sailkatu nahi badute, derrigorrezkoa izango dute irabaztea.



Iazko irabazlea, Leontien Van Moosel, Emakumeen Biran izango da aurtien ere.

ARETO FUTBOLA

PARTIDUAK

- 15:00: La Kokotxa-Chievo
Txapela
- 16:00: Txapela-Arineketan
Bar El Arco
- 17:00: MTS-Spias
Arineketan
- 18:00: Komando Piperrak-Vicios
Spias

SAILKAPENA

Taldea	P	J
1. Arineketan	11	6
2. Vicios	9	6
3. Txapela	8	6
4. Bar El Arco	8	6
5. Komando Piperrak	6	6
6. Chievo	6	6
7. Spias	6	6
8. MTS	2	6
9. La Kokotxa	0	7

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA**

Goibekokale

**SAIOA ARANZABAL
MASAJEAK**

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu **646 50 00 29** telefonora ordua eskatzeko

GOIO SARASUA
Igeltserotza lanak
Tei atuak
Sukaldeak
Etxaurreak
Komunak
Otzango Behekoa Baserria
OIKINA
Tel: 943 86 01 56

ERRETRATUZAHARRA

Emakume
zezenzaleak
Donostian

Bergarako emakume koadrila batek Donostiara egindako irteera bateko argazkia duzue albokoa. Erretratua 1950. urteko abuztuaren 30ean ateratakoa da. Sasoi hartan, toreatzailerik onenak joaten ziren Donostiako El Chofre zezen-plazara, gaur egun, Ilunbera joaten diren moduan. El Chofre zezen-plaza Gros auzoan zegoen eta udan egiten zituzten zezenketetan giro ezin hobea izaten zen.

Esan bezala, erretratuan agertzen diren emakumeak zezenzaleak ziren, eta, Pakita Ilarduia esan digunez, egun ederra igaro zuten elkarrekin 1950eko udako egun hartan. Eguraldia lagun, Donostian bueltatxo bat eman eta zezenketara joan ziren. Honako hauek dira Kontxako barandaren ondoan azaltzen direnak, ezkerretik eskumara: Pakita Ilarduia, Tere Bea, Dorita García, Dominica Artza eta Maria Camino Ilarduia.

Argazkia: Pakita Ilarduia.



ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Olaso dorrea

Jatorrian Errezabal Etxea izenarekin ezagutzen zen, eta Monzon Etxea izendapena ere izan du, 1787. urtea ezkerreko familiaren lehen abizena Monzon izan delako. XVI.eko hainbat agiritan Juan de Errezabalen Etxea Bergarako eraikin garrantzitsuenen artean aipatzen da, hura izan zen-eta ugazaba 1462tik aurrera. Herriko etxe dotoreenetakoa da, zalantza barik.



≈ 1900 XX. mendeko hasierako argazki honetan Olaso dorreak garai baten zeukan etxe-egutera ikus daiteke.




2002 Olaso dorrea, gaur egun. Erdi Aroko dorreen estilokoa da eta XVI. mende hasierako arkitekturaren adibide bikainenetakoa da.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak



Zure sukaldea.

Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxa: 943 76 70 58

SAN MARTIN ESKOLA EUSKAL ASTEA 2002

Honekin, sei ikasturte izango dira udako oporrak hartu aurretik Euskal Astea ospatzen dugula. Hainbat jarduera burutzen ditugu, eta denek euskal kulturarekin lotura zuzena dute.

Helburua hauxe da: euskal kulturako jarduerak era atseginean eginez, kultura honen ezagupena zabaldu eta afektiboki euskal kulturarekin oroitzapen positiboa izan.

EGITARAUA

- **Ekainak 14:** txupinazoa, pregoia, horma-irudiak.
- **Ekainak 17:** Pilota Txapelketako finalak.
- **Ekainak 18:** bertsoak, abestiak eta olerkiak.
- **Ekainak 19:** jolas tradizionalak, ipuinak, igarkizunak, txisteak.
- **Ekainak 20:** euskal dantzak.
- **Ekainak 21:** Haur Hezkuntzakoek jolasak egingo dituzte eta Lehen Hezkuntzakoek txangoa egingo dute.



SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA

Bergarako ikastetxe publikoak



Guipuzcoana Euro Express: Nazio eta Europa mailako paketeria garraioa

San Juan Erreka z/g Elgeta bidea. Bergara - Tel. 943 763 642 - Faxe 943 765 425

